



FESTAREN SOKAN

/ 12-13

"Bizitzan behin izanen dudan esperientzia bat izan liteke"

ENARA, ARTZAI, BEÑAT, LEIRE, ERKUDEN, GURUTZ, KAIET, EKAI ETA IRAITZ JZIOQUITARRAK

EuskarAbenturan parte hartuko duten gazte sakandarrekin abiatu aurretik bildu gara

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hizkuntza, gizarte, ekonomia eta kultura errealitate anitzetako 125 gazte parte hartuko dute EuskarAbenturan, haren laugarren espedizioan. Parte hartzaileak, jzioquitarrak (iziokitarrak irakurri) 16 eta 17 urte artekoak dira, Euskal Herrikoak eta diasporakoak (bi). Garilaren 1etik 31ra gazte horiek Euskararen Lurraldea zeharkatuko dute oinez. Kultura, osasuna, ekologia eta parekidetasuna bezalako baloreak indartuko dituzte, euskaratik eta euskaraz. 400 km-ko ibilbidean 32 herri zeharkatuko dituzte.

Bederatzi sakandarrek parte hartuko dute aurtengo edizioan: Enara Uharte Osinaga ihebardarra, Beñat Gomez Maiz eta Artzai Karasatorre Sureda etxarriarrak, Leire Zelaia Leiza eta Erkuden Saez de Adana Larrañaga bakaikuarak, Gurutz Goikoetxea Iri-sarri eta Kaiet Arzamendi Arakama urdindarrak eta Ekai Vicente Lopez de Goikoetxea eta Iraitz Larrañaga Vicente olaztiarrak.

Nola izan zenuten EuskarArabenturaren berri?

Enara. Ahizpa bizpahiru urte lehenago saiatu zen sartzen. La-

gun baten bitartez ezagutu zuen berak. Geroztik saiatu da ni mundu honetara ekartzen. Kuadrillako beste inork ez du izenik eman, ni bakarra izan naiz. Aukera paregabea izan daiteke mendia ezagutzeko, gure parajeak baloratzeko, baita lagun berriak egiteko ere.

Kaiet. Institutuan geundela Baxilergoko 1. mailako ikasle batzuk etorri ziren EuskarAbenturari buruzko hitzaldia ematera. Hortik aurrera hasi nintzen informazioa bilatzen, gehiago interesatzen. Hasieran ikusi nuen hilabeterako zela, beharbada denbora gehiegi. Pentsatu nuen izan litekeela bizitzan behin izanen dudan esperientzia bat, betiko gogoratzeko. Gainera, kausa on batengatik da: euskara sustatzea.

Gurutz. Nik ere institutuan izan nuen EuskarAbenturaren berri. Kateari tiraka atera nituen behar nituen informazioak eta halakoak. Kaietekin ere hitz egin nuen, banekielako berak ere izena eman behar zuela, edo, behintzat, saikera egin behar zuela. Urdiaingo euskara zabaltzeko aukera oso ona izan daiteke. Lagunak egiteko aukera polita izan daiteke. Eta

bizitzako esperientzia polit bat izan daiteke.

Artzai. Joan zen urtean parte hartu zuen bat azalpenak ematera ikastolara etorri zen. Pixka bat harrigarria iruditu zitzaidan, joatea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen.

Beñat. Aurretik ezagutzen nuen, baina parte hartzeko asmo handirik ez nuen. Baina bideoak ikusten eta webgunean sartzen hasi nintzen eta nahiko interesgarri iruditu zitzaidan.

Erkuden. Lagun bat duela bi urte joan zen. Bere esperientzia kontatu zidan, gustatu zitzaidan eta, ordutik, joateko gogoia beti izan dut.

Leire. Kontzertu batean ezagutu nuen. Kanean geunden eta, bat-batean, laranja jantzitako kristoren kuadrilla sartu zen. Izebak kontatu zidan zer zen. Ondoren Erkudenekin hitz egin nuen.

Iraitz. Nire lehengusu Aimar duela bi urte joan zelako. Esan zidan oso kontent egon zela, sekulakoa dela. Horregatik eman nuen izena. Jende berria eta Euskal Herria ezagutzeko eman dut izena, eta mendiak igotzeko.



Leire Zelaia Leiza eta Erkuden Saez de Adana Larrañaga bakaikuarak.



Artzai Karasatorre Sureda eta Beñat Gomez Maiz etxarriarrak.



Ekai Vicente Lopez de Goikoetxea eta Iraitz Larrañaga Vicente olaztiarrak.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti


GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Gurutz Goikoetxea Irisarri eta Kaiet Arzamendi Arakama urdindarrak.



Enara Uhartea Osinaga ihebardarra.

Ekai. Anaiaren bidez izan nuen espedizioaren berri, duela bi urte parte hartu zuen. Parte hartzera animatu ninduen, oso esperientzia polita dela esan zidan, eta aurten erabakia hartu nuen. Mendia gustatzen zait. Eta berria den zerbait probatzeko.

Aukeratuak izateko zer egin zenuen?

Leire. Happykrazia gaia aukeratu nuen. Pentsarazi digute pozik bizi behar dugula, poztasun hori lortzeko zer egin behar dugun. Horrekin abesti bat sortu nuen, eta testu batean abestia azaldu nuen.

Enara. Hainbat gai zeuden eta happykrazia aukeratu nuen idatzi bat egiteko. Gizarte honetan inposatutako zoriontasuna daukagu. Gorputz idealek ere eragin handia dute gizartearengan, baita gazteengan ere.

Erkuden. Gizartea-naturan, natura-gizartearen gaia aukeratu nuen. Birziklatutako materialekin es-

kultura bat sortu nuen, metalezko buru bat. Niretako gizartea eta natura zer ziren irudikatzen zuten. Hura azaltzeko testu bat egin nuen: zergatik egin nuen, zein materialekin, nola egin nuen, esanahia...

Kaiet. Happykraziari buruzko ipuina egin nuen. Protagonista mutiki bat zen, zoriontsu izatea amesten zuena. Hasieran beti gauza materialekin pentsatzen zuten. Horiek lortzen joan hala konturatzen da benetako zoriontasuna ez dagoela gauza materialekin, esperientzietan baizik.

Beñat. Musika konposizio bat egin nuen, eta zortziko txikian bertso batzuk sortu nituen. Hura

"ONARTUEN BIGARREN ZERRENDAN SARTU NINTZEN. ZORION ASKO, JOATEKO GOGO PILA DITUT"

grabatu eta aurrera. Gaia, natura gizartean. Istorio bat asmatu nuen. Gizon batek maite zituen basoak suntsitzen joaten zirela ikusten zuen.

Artzai. Bidaiariak eta turistak gaia aukeratu nuen. Idatzi pixka bat literarioa egin nuen. Bi pertsona daude, turista eta bidaiaria. Haien arteko elkarrizketa da, bidaiaria bera egin baina gauza desberdinak bizi eta ikusi dituzte.

Ekai. Happykraziaren inguruko poema bat egin nuen. Pertsonak egoera batzuetan nolako sentimenduak sentitu ditzakeen jasotzen du.

Iraitz. Ziorditik zerura izenburua zuen idatzi bat egin nuen. Ziordian bizi ziren bi anaien istorioa da. Anai batek besteari esan zion ibaia garbitu nahi zuela. Adostu eta hurrengo egunean ibaia garbitzera joan ziren. Anaietako batek Youtubean kanala egin eta bideoak igotzen hasi zen. Horrela anai famatua egin zen eta Euskal Herrian barna ibaiak garbitzen aritu zen.

Gurutz. Turistak versus bidaiariak gaia aukeratu nuen. Mutiki bati buruzkoa, oso lan xinplea zeukan, eta bere bizitzarekin nahikoa aspertuta zegoen. Institutuko nesaki batekin elkartzeko festa batean eta lagunak egiten dira, ondoren nobioak. Eta munduan barna bidaiatzen dute, esperientzia eta gauza berriak ezagutzeko.

Zer sentitu zenuen jakinarazpena jasotzean?

Iraitz. Etxean nengoen. 13:00ak ziren, ordenagailua piztu nuen eta webgunea blokeatuta zegoen, jende guztia emaitzak ikusi nahian baitzebil. 13:20 aldera eman ziguten jakinarazpena. Hartu nindutela ikusi eta oso kontent jarri nintzen. Lasaitasuna ere, lan bat egin genuelako. Jendea ezagutu eta esperientzia berriak biziko ditugu. Uste dut Ekai eta biok mutilak garelako hartu gaituztela.

Ekai. Bai. Mutilek baino gehiago ematen dute izena emakumezkoek, eta mutil guztiak hartzen gaituzte. Hautatua nintzela jakitean poza sentitu nuen. Hilabete oso bat herrikan kanpo egon behar garelako, jende asko ezagutu behar dugulako eta esperientzia polit bat izatea espero dudalako.

Gurutz. Oso pozgarria izan zen. Hartuko nindutela espero nuen, baina jende asko geundela banekeen eta, beharbada, pixka bat

onartua nuen ez nintzela sartu behar. Sartu behar nintzela jakin nuenean asko poztu nintzen.

Artzai. Ezagutzen nuen jende askok eman zuen izena. Ez nekien hartu behar ninduten. Poztasun handia sentitu nuen.

Beñat. Lana egiteko denbora dezente eman nuen. Gustura nago egindako lanarekin eta haiek ere hala pentsatu dute, eta oso pozik nago.

Kaiet. Momentuan, ilusioa. Gehien bat, sorpresa. Jende asko geunden eta pribilegiatua sentitzen zara.

Erkuden. Lehenik onartuen zerrenda bat atera zuten. Leire hautatu zuten eta bera pozik zegoen eta ni triste, baina bera hautatua izateagatik pozik nengoen. Ni onartuen bigarren zerrendan sartu nintzen. Zorion asko, joateko gogo pila sentitzen ditut. Azkenean, biak barruan geunden.

Leire. Egun hartan kristoren poza, alaitasun pila sentitu nituen. Oso urduri geunden denak.

Enara. E-posta hori iritsitakoan poz handia sentitu nuen. Egia esan, negarrez hasi nintzen. Italian nengoen eta lagun guztiei bidali nien hautatua izan nintzenaren berri.

Espediziotik zer nahiago, euskara edo abentura?

Erkuden. Pixka bat, biak. Denek esaten digute esperientzia onena dela. Euskara gehiago sustatzeko eta gehiago erabiltzeko aukera oso ona da.

Beñat. Etxarrin oso ohituta gaude euskaraz hitz egitera. Han beste euskalki batzuk ezagutuko ditugu. Alde horretatik, oso aberasgarria izango da. Baina nahiko abentura izanen da: Euskal Herrian sekula egon gabeko tokietan egonena izan. Hori ere oso aberasgarria izanen da ere.

Leire. Gure inguruan gero eta gehiago gaztelaraz ari da, adibidez, institutuan beti gaude gaztelaniaz hitz egiten. Gure euskara hobetzeko aukera polita da.

Artzai. Biak. Euskararen ezagutza handituko dugu, euskalki berriak. Baina abentura ere bada parte inportantea.

"EUSKARAREN EZAGUTZA HANDITUKO DUGU. BAINA ABENTURA ERE BADA PARTE INPORTANTEA"

Enara. Zaila da aukeratzeko, baina abentura handia izan daiteke. **Iraitz.** Hobe abentura euskara baino (kar, kar).

Ekai. Abentura bila.

Kaiet. Bien arteko konbinazioa izango da. Euskara sustatzea helburu du, baina, esperientzia! Hilabete bat kanpoan, mendian, hainbat tokitako jende berria ezagutu. Oso aberasgarria izan daiteke.

Gurutz. Berdin. Gure adineko gazteak goaz. Polita izanen da jendea ezagutzea. Xer pak ere gazteak izanen dira. Polita izanen da horrelako esperientzia bizitzea.

Zer espero duzue?

Erkuden. Denetarik: negarrak, pozak... Ez dakit zer espero dudan, uste dut denetarik gertatuko zaidala.

Leire. Nik ere antzeko. Kontatu digutenagatik, oso ongi, baina gero ere negarrak eta denetarik. **Gurutz.** Gehienbat, lagunak egitea. Jendeak urdingo euskara ezagutzea. Gutxi hitz egiten dugu Urdiaingo euskara.

Kaiet. Urdiaingo euskara txikitu egin da azken urtetan. Jendeak ezagutzeko euskalki desberdinak. Nik ere beste tokietako euskalkiak ezagutzeko. Pertsonak ezagutu eta esperientziarekin betiko gelditu nahi dut.

Iraitz. Abentura polita izatea.

Enara. Ez dakit. Hainbat gazterekin topatu naiz, eta gauza asko esan dizkidate, guztiak onak. Beraz, gauza onak espero ditut. **Artzai.** Oso aukera ona da. Bel-durrak baino gogo gehiago ditut. Beraz, aurrera. Ea zer gertatzen den.

Beñat. Gogo askorekin nabil. Sozializatzeko oso aukera ona izanen da, Euskal Herriko toki askotako jendea ezagutzen ari zarelako. Jende eta leku berriak ezagutzea espero dut.

Ekai. Ongi pasatzea eta jende asko ezagutzea.

Aurretik parte hartu dutenekin hitz egin duzue?

Iraitz. Olatz Bados Anduezarekin (joan zen urteko parte hartzailea) hitz egin dugu Ekaik eta biok. Gorka Larrazza ere egon zen. Biak ere oso gustura egon ziren.

Ekai. Sakanako lagun batzuekin ere hitz egin dut. Anaiak esandako gauza bera esan didate: esperientzia oso polita dela, joateak merezi duela, eta parte hartzera animatu gintuzten.

Enara. Bai, sakandarrekin mintzatu naiz.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

« AURREKO ORRIAN HASTEN DA

Leire. Maiatzaren 27ko Arbizuko kontzertuetan beraiekin egon ginen. Gurekin etorriko diren batzuk ere han ezagutu genituen. Sakanakoak ere ezagutzen ditugu.

Kaiet. Bai, baina gainetik.

Artzai. Egia esan, ikastolara etorritakoaz aparte, ez.

Beñat. Ikastolara Arbizuko neskatok etorri zen. Aurten joanen direnetako batzuk ezagutzen ditut, baina aurreko edizioetakoak, gutxi.

Gurutz. Aukera bai, baina ez dut interesik izan. Onena hasieratik bukaeraraino bizitzea izan da, lehenago jakin gabe.

400 km aurretik. Zer iruditzen zaizue ibilbidea?

Leire. Horrek bai ematen duela errespetua.

Gurutz. Kirola egitea gustatzen zait, eta horrek laguntzen du. Ez naiz entrenatzen ari, futbol denboraldia despeditu dugu eta horrekin nahiko.

Erkuden. Ibilbidea gogorra da. Egutero gutxienez 20 km, ostras! Ni ez nago ohituta egutero 20 km egitera. Gogorra izan da, baina merezi du.

Beñat. Pirinioetan astebeteko zeharkaldiak egiten ditut. Baina hilabete batekoa ez dut sekula egin. Ongi moldatuko gara.

Enara. Kostata, edo ez, egingo ditugu.

Iraitz. Niretako, km gutxi dira. Ni, aita eta lagun batzuk urtero Huescara bost egunerako joaten gara, eta behar bada, ehun km egiten ditugu. Beraz, km gutxi.

Ekai. Niretako km asko dira, ez dudalako inoiz horrelakorik egin. Ez dakit nola egonen naizen.

Kaiet. 400 km ikustean pixka beldurtu eta guzti egiten zara. Baina hilabete bat da, oso luzea, eta, azkenean, egin liteke. Gainera, mendira igotzeko zaletasuna dut, kirolean ibiltzekoa... Nahiko egingo dudala uste dut.

Horretarako entrenatu beharra duzue?

Artzai. Ni hasi naiz pixka bat entrenatzen, mendira gehiago joaten. Baina hori gutxienezkoa da. Aitari mendia gustatzen zaio eta esan dit pixka bat gogorra izan dela. Ikusiko dugu.

Enara. Hasia naiz mendira joaten. Baina betidanik mendira joan izan naiz, beraz, espero dut zaila ez izatea.



Joan den urteko Euskarabentura. UTZITAKOA

Ekai. Nik ez dut entrenatu. Mendira batzuetan joan naiz, baina ez horrelako distantziak egitera.

Erkuden. Paseoren bat egin dugu, baina egutero ezin dugu. **Leire.** Aldian behin saiatu, baina gutxi ibili naiz, azterketak eta hori guztia...

Iraitz. Mendira joanen naiz. Ez naiz prestatzen ari, baina ohituta nago.

Beñat. Uda hasi denez, mendira gehiago joaten hasi naiz.

Etaparen bat begiz jota duzue?

Ekai. Gainbegiratu dugu, baina ez.

Enara. Begiratu dut, baina, egia esan, ez dut ongi gogoratzen nondik nora ibilik garen. Badakit egunen batean sanferminetan egongo garela. Eta Sakanatik ez garela pasatzen. Begiratu dut.

Leire. Ez dut bat bera ere ikusi. Ez dakit zer egin behar dugun.

Beñat. Ez dut leku jakinik pentsatuta. Euskal Herriaren plano orokorra ikustea, hori bai.

Erkuden. Maulen hasten gara, Donejakue bidea hartu eta malda bat igotzen dugu. Hori besterik ez dakit. Toki pila bat ezagutzeko irrikitan nago.

"HAINBAT GAZTEREKIN TOPATU NAIZ, ETA GAUZA ASKO ESAN DIZKIDATE, GUZTIAK ONAK"

Artzai. Ibilbidea begiratu dut, baina zehazki zerbait ez dut. Euskal Herri guztia ikusi eta toki berriak ezagutu nahi ditut.

Kaiet. Ez dut ikusi. Beharbada hobe da Gurutzek lehen esandakoa: bizitzea eta momentuan sorpresa hartzea, momentua bizitzea.

Iraitz. Begiratu bai. Hemen ondoan, Araian, edo Iruñean. Lagunak ikusteko, etorriko zirela esan ziguten. Han espero ditugu.

Gurutz. Nik ez dut ikusi. **Eta euskaraz hitz egitearena, hori ere entrenatu beharra duzue?**

Erkuden. Etxean amarekin bai, eta anaiarekin egunaren arabera. Lagunekin, zorritzarekin, ez. Leire eta bion artean bai. Baina kuadrilla euskaraz hitz egiten ez dakien bat dago. Zailagoa da gure artean euskaraz komunikatzea eta, normalean, gaztelaniaz aritzen gara. Institutuan irakasleekin bai, baina klase kideen artean ez. Horregatik, aukera oso polita da gure euskara hobetzeko eta erabiltzeko.

Gurutz. Etxean euskaraz beti, lagunekin ere askotan euskaraz. **Beñat.** Alde horretatik, ez dut arazorik ikusten.

Iraitz. Beharbada bai, aste honetan gurasoekin eta lagunekin euskaraz hitz egin behar ko dut. Ikasturte honetan Iruñean nago eta klaseak gaztelaniaz dira.

Enara. Azken urteotan euskara gutxiago erabili izan dut, baina

ez zait gehiegi kostako. Gainera, lagun berriak eginez, erraza izan dela espero dut.

Kaiet. Etxean beti euskaraz egiten da. Kanean gauza zailagoa da, baina saiatzen gara ahalik eta gehien Urduiaingo euskaraz hitz egiten.

Artzai. Arazorik ez dut uste izan dugunik. Ea euskalki berriak ezagutzen ditugun.

Ekai. Bai. Kanean, lagunekin, ez dugulako ia euskaraz hitz egiten. **Berrikuntzetako bat da ikerlari batzuek ikerketa egin behar dutela. Hots egin dizute?**

Leire. Erkudenekin eta biok egin dugu elkarrizketa. Beste bi gehiago egin behar ditugu. Lehenik hiru testu irakurri behar izan genituen. Batez ere hitz egitea zen.

Erkuden. Zure ahoskera aztertzeko elkarrizketa zen.

Ekai. Nik ez dut elkarrizketa egin.

Artzai. Etorri ziren eta elkarrizketa egin zidaten. Hasieran ez nekien oso ongi zer zen. Interesgarria da, nola hitz egiten dugun jakiteko da.

Beñat. Mutiko bat etorri zen Bizkaitik. Testu batzuk irakurra-

razi zizkidan. Ondoren galdera batzuk egin zizkidan. Esan digute Euskarabenturaren aurretik, tartean eta ondoren eginen dutela, hiru proba.

Iraitz. Nik astelehenean egin nuen. Ongi, gustura egon ginen. Bigarrena 22. etapan eta azkena hiru hilabete barru izanen dela uste dut.

Enara. Horren inguruko berririk ez dut izan.

125 parte hartzaile, a ze kuadrilla!

Enara. Asko gara. Egutero zehar, etapak egiteko, talde txikiagoak egiten dituztela uste dut. Hori jendea ongi ezagutzeko ongi dago.

Leire. Gehiegi. Lagunak Euskal Herri guztian. Horrela, festetara joateko etxeak ditugu, ez dator gaizki.

Artzai. Jende asko. Gogoetako bat da jende berria ezagutzeko. Ongi.

Iraitz. Zortzi bat ezagutzen ditugu, gainontzekoak, denak, berririk dira. Lagun asko egiten ditugu eta leku asko bisitatu ahaliko ditugu beraiekin.

Beñat. Euskal Herri guztian lagunak, eta diasporako bi, Valentzia eta Argentina.

Kaiet. Jendea ezagutzeko oso aukera polita da.

Gurutz. Hori da. Jende asko goaz, baina uste dut ez dugula arazorik izanen.

Zerekin bueltatu nahi zenuke?

Iraitz. Lagun askorekin. Eta beltzarantzea.

Erkuden. Lagun askorekin, eta euskara hobearrekin. Ez dut gehiago eskatzen.

Leire. Gauza bera.

Kaiet. Esperientziarekin, betiko oroitzen polit bat izatea eta mendiari zaletasun handiagoa hartzea. Uste dut dena ona izan dela.

Artzai. Lagun berriekin eta oroitzen politekin.

Gurutz. Esperientzia bikainarekin bueltatzea, lagun asko egitea, mendi eta herri politikak ezagutzeko, jendea ezagutzeko eta ongi pasatzea.

Ekai. Harreman askorekin, lagunekin. Besteren batean beraiekin gelditu eta mendira joateko-edo.

Beñat. Esperientzia oso ona izan da. Oroitzapenak bai, baina lagunak betiko, edo denboraldi luze baterako, egiten ditugu. Horren gogoz.

Enara. Lagun onak ekartzea, euskal kultura barneratu izana eta txoko politikak ezagutzeko.

"EUSKARABENTURA AUKERA OSO POLITA DA GURE EUSKARA HOBETZEKO ETA ERABILTZEKO"

"Berriz bueltatzeko gogo handiz etorri nintzen"

AIMAR VICENTE LOPEZ DE GOIKOETXEA XERPA LAGUNTZAILEA

Euskarabenturan begirale praktikak eginen ditu olaztiarrak, horregatik da sherpa laguntzailea. Lehenik parte hartzaile gisa aritu zen, orain antolakuntzan ariko da

A.A.I. OLATZAGUTIA

EuskarAbentura despeditzen duenean, praktikak osatuta, begirale titulua eskuratuta bueltatuko da etxera olaztiarra. Irakasle ikasketak egiten ari da.

Nolaz begirale?

Duela urte batzuetatik argi daukat ume eta haurrekin lan egin nahi dudala, eta gustuko dudala haiekin lan egitea. Badakit irakasle ikasketak egin eta begirale titulua atera nahi dudala eta gazteekin egin nahi dudala nire bizitzako etapa.

Aurretik eskarmenturik baduzu?

Programaren batean ibili izan naiz bidelagun. Udan Euskaraz laguntzen egon naiz gaur (astelehenean), adibidez. Eta familia-ko lehengusu eta lehengusina txikiekin beti ongi moldatu naiz.

Zergatik eman zenuen izena EuskarAbenturan?

Izena eman nuen lehenengo aldia izan zen 2020. urtean, jzioquitar moduan onartu ninduten. COVID-19 garaia zen eta edizio pixka bat xelebrea izan zen: 10 egun egon nintzen bakarrik, baina primeran pasa nuen. Bigarren txandan bisitan egon nintzen. Joan zen urtean ere egun batzuetan bisitan izan nintzen. Argi nuen aurten joan behar nintzela. Izena eman eta kitto.

Zer oroitzen duzu?



Aimar Vicente Lopez de Goikoetxea EuskarAbenturako xerpa edo begiralea da.

Lehenengo txandan egon nintzen. 120 gazte beharrean 60 gazte egon ginen. Nahikoa erlazio estua egin genuen gure artean. Hiruzpalau ezagunekin joan nintzen. Lehen egunetan hizketatzen hasi eta batzuk beste ezagun batzuen ezagunak ziren, ez dakit non familia zuena eta nire familia dena... Azkenean, kristoren harremana egiten duzu denekin, eta esperientzia polita bizitzen duzu.

Betirako gelditzen dena?

Gure edizioa berezia izan zenez, batzuekin bai, erlazio oso estua.

Eta, besteekin, kalean topo egiten duzunean, primeran. Aurten bereziagoa izango da.

Balio du lagunak egiteko?

Jakina. Lehenengo egunak arrotzak dira, jendea ezagutu behar duzulako, eta denak ez direlako zu bezalakoak. Baina bosgarren egunetik aurrera, jada, erlazioak egiten dituzu. Eta azken egunean ezin bukatu abentura.

Ezagutu zenuen Euskal Herria?

Nire espedizioan ez, berezia izan zelako. Bi oinarrizko kanpamentu modukoak egin genituen eta handik abiatuta mugitzen ginen.

Baina, aurten Euskal Herria zeharkatzeko gogo handiz nago, txoko bereziak ezagutzeko gogoz. **Hilabete bat etxetik kanpo 125 gazteren arduradun.**

Gustura. Ongi portatuko dira.

Lehengusua eta anaia joaten dira.

Ongi portatu beharko dira, bes-tela... Haiekin ongi ere.

Gainontzeko begiraleak ezagutzen dituzu?

Duela bi aste Zarautzen egon ginen, asteburu pasa, prestakuntza eta halako lanak egiten. Batzuk ezagunak dira beste edizio batzuetatik, eta aurten beste asko berriak, baina, tira.

Zein da zuen egitekoa EuskarAbenturako egun batean?

Xerpa edo begirale bakoitzak bere taldea du, 12 edo 13 pertsonakoa. Goizetik gauera talde hori bere ardurapean dago; haiekin gosaldur, bazkaldur, lo egin behar du. Horiek dira zure ardurapean daudenak, gehienbat. Gure egitekoa da dena normal joatea, eta gutxi gehiago. Azkenean, ez dira oso gazteak, nahiko helduak dira. Haiek ere beretik jartzen dute, eta dena ongi doa beti.

Zenbat jende joaten da parte hartzaileekin batera?

125 gazte dira. Lantalde moduan 30 pertsona goaz. Horietatik xerpak uste dut hamar bat izango direla, eta sherpa laguntzaile hamabost. Bestalde, badira medikuak, erizainak, komunikazio lantaldea, koordinazio lan taldea...

Xerpa, zergatik?

Euskarabentura Ruta Quetzaletik dator, eta han monitore direnak xerpak dira. Beraz, espedizioan, EuskarAbenturan ere xerpak gara; ez gara ez monitore edo ez begirale, xerpak.

Baduzue izen berezi bat ere, lehen aipatu duzuna, ezta?

Jzioquitar. EuskarAbenturaren leloa *jzioqui dugu* da. Oker ez

banabil, euskarazko lehen idatzitakoa da (Donemiliagako glo-sak, X. mende akabera edo XI. mende hasierakoak). Horregatik, jzioquitarrak.

Hilabete bat lanean etxetik kanpo.

Beno lanean, lanean ez dakit, gustura pasatzera. Baina hilabete bat ez da izango, zeren egun batean Olatzagutira eskapo egiten dut, festetara. Egun bat, lagunak ikusteko, eta listo.

Araiatik pasatzen zarete.

Araian ere geratuko gara. Ea lagunak bisitan etortzen diren.

Gogoko etaparen bat baduzu?

Joan zen urtean bisitan egon nintzen, parte hartzaileen artean ezagunak nituelako. Uste dut etaparik hobereana egin nuela: Araia eta Zerain artekoa. Araiatik ateratzen gara. Aizkorri eta Aratz artean, San Adrian kobatik pasatzen gara. Etapa Zerainen bukatzen dugu. Aurten hamabosgarren egunean tokatzen zaigu. Egun horretan bertso afaria egiten da. Herria antolatzen da, herri guztiak parte hartzen du, eta espedizio osoari afaltzen ematen digute, musu-truk. Gainera, bertsolariekin. Afari mundiala izaten da.

Zure esperientzia hartatik, zerekin bueltatu zinen?

Bueltatu nintzen lagun askorekin, eta berriz bueltatzeko gogo handiz bueltatu nintzen. Han nengoela argi neukan bueltatu behar nintzela, txantxa moduan esaten nuen: ni hurrengo urdin moduan bueltatu behar naiz. Eta bete dut.

Urdina, xerpen kolorea delako?

Hori da. Laranja jzioquitarren kolorea da.

Zerekin bueltatzea espero duzu?

Lasai bueltatzea espero dut, ezer ez gertatzea. Lagun askorekin, ondoren Euskal Herrian zehar bisita ditzakedan eta juergak egin ditzakedan jende askorekin.

JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



@panesamayaogiak

Amaya

OGITEGIA
pana 104 00274





ASTEKOA

RAF ATXURI

Miamin auzi mardula

Eta potoloa. Berriki abiatu da Miami Auzitegian Donald Trump akusatuen aulkira ekarri duen beste auzi bat, eta ustez usadioari jarraiki, onik, oso zutik eta beti bezain lepotente atera beharko luke presidente ohiak kausa honetatik ere. Badira, hala ere, elementu batzuk, honako honek zerbait desberdina ekar dezakeela pentsatzera garamatzatenak. Epaiketa federala dugu hauxe, eta egozten zaizkionak nazioaren segurtasunarekin loturik daude, hortaz, oraingoan, gona edota diru-ustelkeria konturik ez dago.

Joan zen urteko irailean Altsasun Pensilvaniako ezagun batek seriooki gaztigatu zidan: "Amerikako Estatu Batuetan gerra zibilaren arriskua benetakoa da". Erantzun nion, txiste txarra eginez, bertakoek etxeetan dauzkaten armategiak ikusita *reality* galanta izanen litzatekeela, baina etorkizun hurbilean ez dudala gertagai ikusten gerra hura, apika hamar, hamabost urte barru bai, oraindik orain, ez ordea. Ondoren Pensilvaniaz eta Kaliforniaz aritu ginen, bietatik zein altxatuko den lehenik independentziaren alde.

HARTARA ESKUBIDE SOZIALEN BORROKAN ARI DIRENEK, EGOERA ITSUSIA DUKETE AURREZ AURRE

oinazek gaiztotu eta garrazturik dirautela. Inguruabar honetan Trump airatu eta kontrolgabe baten ekarpena izutzeko modukoa izan daiteke; hartara eskubide sozialen borrokan ari direnek, etorkinek, beltzek, LGTBiek, feministek, ekologistek eta enparauk egoera itsusia dukete aurrez aurre (sekula ez dute ederra izan, alajaina).

Txina, bitartean, te goxo bat presarik gabe hartzen duelarik, erraldoi itsuaren eroriaren zain da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK

Pistola jokoak Etxarri Aranatzten

Uda iritsi da gure kaleetara, eta hurrek atera dituzte beraien arma handienak. Baina ez izutu, arma hauek ez baitute minik egiten, norbaitek tiro egiten badizu, sentsazio freskagarri bat soilik sentituko duzu, ura baita botatzen duten bakarra. Etxarri Aranatzten aurkitu dugun bikote hau, udaz gozatzen ari dira, eta beraien eredu jarraitu beharko genuke denek, pantailak itzali, eta atera kalera atera udaz gozatzera, baina, adi, ez ahaztu beroaren aurkako zure armak.



Telegram kanala

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
Iñaki Rubio Mendoza
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Heteroarauaren egiturak desegiteko deia egin dute

Transmaribolloek ardura eta erantzukizun indibidual eta kolektiboan oinarritutako konpromisoa eskatu dute

ALTSASU

LGBTBIQ+ askapenaren nazioarteko egunean, asteazkenean, kontzentrazioa egin zen Altsasuko udaletxe parean. Deitzaileek azaldu zutenenez, "erabaki bat da sexu disidenteak izatea. Erabaki multzo bat eta praktika multzo bat. Zer, nola, norekin, noiz, zenbat, zergatik, nondik, nora... Etengabe galdera horiei erantzuna eta kausa bilatzea, eta, ahal bada, topatzea. Etengabe desirak zalantzan jartzea, eta desirak bezala, kategoria, identitatea eta generoa". Gaineratu zutenenez, haiendako sexu disidentzia, "sistema heteropatriarkalari eta heteroarauari bide disidente bat eraikitzeko tresna eta izateko espazioa da". Aldi berean, ziurtatu zuten "familia nuklearrari alternatiba bat eraikitzeko bide bat" dela transmaribollo izatea. "Bestelako harreman ereduak sortu eta gizartea beste erabatean egituratzeko bideak egin" da.

Horregatik, "ez dugu nahi onartuak izatea eta sistema honetan bizirauteko leku bat ematea". Gaineratu zutenenez, "ardura eta erantzukizun indibiduala eta kolektiboa oinarrian izango dituen konpromisoa eskatzen dugu, dena aldatzeko". Azpimarratu zutenenez, "heteroaraua eta sistema heterosexualearen baitan egituratutako oro desegin eta sistema berriak eraikitzea goaz; harreman eredu berriak, lan banaketa berriak".

Ziurtatu zutenenez, "sistema kapitalista zisheteropatriarkalak etengabe kolpatzen ditu gure bizitzak. Hala ere, gorputz batzuk beste batzuk baino gehiago dira kolpatuak. Kaleak eta eguneroan egon behar garen beste espazio asko ez dira seguruak guretzako". Horren aurrean, "bizitzak sostengatuko dituzte harreman sareak eraiki" nahi dituztela azaldu zuten.

Pediatra faltagatik "egoera jasanezina" da

Altsasuko osasun eremuan gaur egun lanaldi erdia duen pediatra bat dago, bajaran dagoena ez dute ordezkatu. Lanean ari den pediatra bere kupoko umeak artatzen ari da soilik, 423

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Lanaldi eta erdiko pediatria zerbitzua izan beharko luke Altsasuko osasun eskualdeak. Hau da, Altsasuk, Olatzagutiak eta Ziordiak lanaldi osoan ariko den pediatra bat eta lanaldi erdian arituko den beste bat izan behar ditu. Baina, gaur egun, azken hori besterik ez dago lanean. Hala jakinarazi du guraso talde batek, hain zuzen ere, Altsasuko osasun eskualdean pediatria zerbitzua bermatzea eskatzeko otsailaren 24tik aurrera kontzentrazioak deitu zituenak.

Guraso taldeak jakinarazi duenez, "garagarrilaren hasieran pediatra bat lanaldi murriztutarekin lanean hasi zen. Baina, lanaldi osoa duen pediatrak baja bat bestearen atzetik kateatzen darama hilabetea osoa eta Osasun Departamentuak ez du ordezkorik bidali. Beraz, gaur egun lanaldi murriztua duen pediatra bakarra daukagu Altsasuko osasun eskualdean". Gurasoek jakinarazi dutenez, "lanaldi murriztua duen pediatra asteen hiru egunez etortzen da beste biak Ultzaman lan egin behar dutelako, hau da, berak hala nahi izanda ere ezin izango luke egunero Altsasura etorri".

Kupoa

Osasun txartel kopuru jakin bat dagokie sendagile eta pediatrei, kupo bat dute. Guraso taldeak gaztigatu duenez, "lanaldi erdian dagoen pediatrak bere kupoan dauden umeak bakarrik artatzen ditu, 423 ume, gainontzekoak ez". Nabarmendu dutenez, "gure osasun eskualdean pediatraren kupo, gutxi gorabehera, 800 ume ingurukoa da. Hau da, pediatra bakoitzak 800 ume inguru ditu artatzen ditu. Iruñerriko eskualde askotan, berriz, kupo 600 ume ingurukoa da", jakinarazi dute. Azaldu dutenez, "beste urte batzuetan, udan zegoen pediatra gure eskualdeko kupo guztiko



Ostiralero pediatra eskatzeko bilkurak egin ziren hilabete eta erdiz. ARTXIBOA

"LANALDI MURRIZTUA DUEN PEDIATRA HIRUTAN ETORTZEN DA. BESTE BITAN ULTZAMARA DOA"

umeak artatzen egon da, lanaldi osoa eta lanaldi murriztua zuen pediatrarena. Orain gauden egoeran etortzen den pediatrak dagozkion 423 umeak bakarrik artatzen ditu", azpimarratu dute, aitortzearekin batera udan ume gaixo gutxiago daudela.

Bestetik, gogorarazi dute pediatra bakoitzarekin erizain bana ari dela. "Pediatarik gabe egon garen denboraldi luzean lanaldi osoan zegoen erizainak umeen baheketa egiten zuen eta batera edo bestera bideratzen zituen". Gurasoek gaztigatu dutenez, gaur egun "erizain bat lanaldi osoan dago eta beste erizaina baja luze bat du eta Osasun Departamentuak ez du ordezkorik jarri".

Protesta bilkura eta departamentuaren iragarpen askoren ondoren apirilaren 11n pediatra bat etorri zen Altsasuko osasun eskualdera. Guraso taldeak azal-

du duenez, "azken hilabetean pediatria zerbitzuaren gorabehera adi erreparatu diegu eta, zerbitzuaren egokitze prozesuan zehar ez dugu ezer esan, arazoari irtenbidea ematen ari zitzaiolako pentsatzen genuelako. Baina, berriro ere egoera jasanezina dela salatzeraz gataz".

Egonkortasun gabeko zerbitzua

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia osatzen duten osasun eskualdean abendu akaberaz geroztik apirilaren 11ra arte ez zen pediatrarik egon. Egoera horren ondorioz, osasun etxera joaten zirenak pediatria zerbitzukoak ez zen erizain batek artatzen zituen. Horregatik, familia askok ez zuten bermatuta ikusten bermatuta ikusten haurrak zuenaren balorazio egokia, zerbait larria ote zen. Segurtasun falta sentitzen zuten. Ondorioz, Iruñeko San Martin ambulatioria, edo larrialdietara, zuzenean jotzea erabaki zuten askok. Hori ulean-uneke egorei dagokienez, baina umeek urtero pasa beharreko prebentzio azterketak ere ez ziren egin. Kezka orokortuak gurasoak antolatzea eraman zituen.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz

Urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudenez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Badakizue Sakana dela gehien birziklatzen duen eskualdea Nafarroan? Dena den, gure esku dago zabortegean amaitzen den hondakin berrerabilgarrien eta birziklagarrien kopurua jaistea. Herriko jaiak ate joka ditugunez, saiatuko al gara horietan hondakin gutxiago sortzen eta sortutakoa ongi bereizten?

Badirudi jai giroan erraz ahazten zaigula hondakinak bereiztea. Eguneroan hondakinak banatzen baditugu, jaietan ere, izan arduratsuak. Hondakin Zerbitzuak indargarri moduan edukiontzia eramaten ditu jaiak ospatzen direnean. Horietara hondakinak sailkatuta bota, eta errefusera ahalik eta gutxien botatzen saiatu. Maiz entzun bezala, hondakinik onena sortzen ez dena! Beraz, hondakin gutxi sortzeko kontuan hartu:

- Edalontzi berrerabilgarriak erabili eta, ahal bada, etxean pilatuta dituzuen horietako bat atera.

- Herrian otorduren bat antolatzeko baduzue, lehenetsi baxera berrerabilgarria. oprec-navarra.com bidez erraz lor daiteke. Laguntza behar baduzu, 900 730 450 telefonora deitu. Jatekoak ongi planifikatu eta hondarrak edukiontzi marroira bota.

Festetan ere herriak garbi mantentzea guztion ardura da!

Mank
SAKANAKO



Industrialdeei buruzko jardunaldian parte hartu zutenak.

Industrialdeen erradiografia egin dute

Zazpi herrietako dozena bat industrialderen egoera aztertu du Sakanako Garapen Agentziak; "funtsezkoa da egoera onean egotea, industria eskualdeko ekonomia motorra baita". Jakinarazi duenez, ibarreko eta kanpoko eskaera dago, eta tokia dago

SAKANA
Industria guneen egoera eta etorkizunari buruzko jardunaldia antolatuta zuen Sakanako Garapen Agentziak (SGA) hilaren 22an. Haren bidez, hausnarketa bat bideratu nahi izan

dutela azaldu du Iker Mantrola Matxainek, SGAko kudeatzaileak: "industria guneek beren gobernantza eredua, planak eta azpiegiturak eguneratuta izan behar dituzte, eta etengabeko hobekuntzan

lan egin behar dute, Sakanaren garapenerako funtsezkoa baitira". Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezen ongi etorriaren ondoren, Nasuvinsako zuzendari kudeatzaile Alberto Baiona Lopezek, erakundearen epe

laburreko estrategia eta Sakanan aurreikusita dituzten inbertsio planak azaldu zituen. Nafarroako Gobernuako Industria Lurzoruko Ataleko buru den Patricia Muñoz Nievesek, Nafarroako industrialdeendako laguntzen funtzionamendua xeheki azaldu zuen. Sakanako industrialdeetan egindako jardunbide egokien adibideak eman zituzten Irurtzongo alkate ohi eta zinegotzi Aitor Larraza Carrerak eta Olatzagutiko alkate Joseba Vizute Askargortak. Manterola bera izan zen Sakanako industrialdeen egoerari buruz egindako azterketa aurkeztu zuena.

Diagnosia

Beste herrietan industria jardura baldin badago ere, industrialde izendapena duten Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko dozena bat industria gune aztertu dituzte diagnosia egiterakoan. "Salbuespenen bat ezik, industrialdeen egoera orokorra nahiko txarra da", ondorioztatu dute. "Egoera okertzen da herrietatik enpresetara irisgarritasuna aztertzean. Herria edo auzoak eta industrialdeekin lotuko duen espaloirik, beharrezko argiteriarik, segurtasunik eta bestelakorik ez dago". Bestalde, gehienek argiteria berria dute. "Bestetik, Arakilgo industrialdeko Udalaz gaindikoa Eragineko Plan Sektoriala garatzeko bospasei urte daramatzate. Horrek, beste behin, erakusten du zer zailtasun dakarren administrazio publikoen arintasun faltak".

Egin beharreko lanak egitea aholkatu ondoren, "helburuak betetzeko", SGAK industrialdeen

governantza publiko-pribatua proposatzen du. "Espazio hori erronkak zehaztu, lehentasunak markatu eta jarduketara plan erraza sortzeko balio beharko luke. Hiru erronka kontuan izan beharko lituzke: klima aldaketara egokitzea azpiegituren zaurgarritasunagatik; mugikortasun jasangarria eta trenbide bidezko garraioa eta energia trantsizioa".

Erronkei dagokienez, udalek Mugikortasun Jasangarriko Planak egin beharko dituzte. 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herriek, Altsasuk, 2024ko apirilera. Eta 200 langile baino gehiago dituzten industrialdeek 2025eko apirilera izan beharko dituzte. Bestetik, SGA Nafarroako Gobernuarekin garraioaren lanketa egiten ari da, "fokua tren bidezko garraioan jarritz. Sakana zeharkatzen duen trenbideak potentzialitate handia du, Atlantikoko eta Mediterraneoko korridoreekin lotura duelako". Bestetik, "ibarreko enpresen arazo handiena langile falta da. Langile gehien izateko beharrezkoa da bidaiari garraio egokia izatea eta inguruko eskualdeetako herritarren mugikortasuna bideratzea".

Erabili gabeko lantegi eta logistika planten sustapen eta komertzializazio lanak hasiak dituzte SGAK eta Nafarroako Gobernuak, "Sakanan gutxieneko kostuekin ezartzeko" aukera eskainiz. Etxarri Aranatz 16.000 m²-ko planta eskaintzen dute, 13.000ko lantegia duena. Altsasuko Ibarrea industrialdean 8.500 m²-ko partzela bat, 1.700 eraikita dituenak. Altsasuko Ondarrian 10.000 m²-ko partzela, 7.000 eraikita dituenak, eta, azkenik, Olatzagutian 1.600 m²-ko lantegi bat.

Giro euskalduna, gune inklusiboa, otorduatarako menu zabala, kontzertuak, erromeriak, dantzaldiak, bertsolariak... eta gehiago!



hotsein!

zatoz gurekin!

SAN FERMINAK OINEZ TXOKOAN TAKONERAN GAUDE



Aztertutako industrialdeak

Irurtzun

Erabidea industrialdea

- Udalarena.
- 107.064 m²-ko azalera du.
- 71.908 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiteria du.
- Zorua berria da.
- Urbanizazio egokia du. Herritarrendako sarbidea egokia da. Zuntz optikoa du.

Akaborro industrialdea

- Udalarena.
- 130.700 m²-ko azalera du.
- 90.456 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiteria du.
- Zati batzuetan zorua berritu beharra dago, bestela egokia da.
- Urbanizazioa egokia da, baina zati bat urbanizatzeko dago. Herritik sarbidea egokia da.
- Zuntz optikoa du.

Arakil

Ardantzeta industrialdea

- Nasuvinsarena. Udalaz gairaineko Eragineko Plan Sektoriala abenduan onartzea espero da.
- 456.000 m²-ko azalera du.
- 260.505 m² partzela erabilgarriak. Harivenasak 54.000 m²-ko partzela du.
- 206.000 m² libre daude.
- Hiru partzela libre daude: 49.626 m²-koa, 72.324 m²-koa eta 84.555 m²-koa.
- LED argiak ditu.
- Zorua egokia da.
- Urbanizazioa egokia da.
- Zuntz optikoa du.

Uharte Arakil

Sargaitz industrialdea

- Udalarena.
- 120.263 m²-ko azalera du.
- 112.684 m² partzela erabilgarriak.
- Ohiko bonbillak ordez LED argiak jarri behar dira.

- Toki batzuetan zorua jarri gabe dago, gainera, garraio handiekin maniobrak egiteko baldintza onik ez du.
- Gune barruko urbanizazioa berritu beharra dago, oso gaizki dago, praktikoki ez dago espaloirik. Herritarrendako sarbiderik ez dago, bidea eta argiteria ez dira egokiak.
- Zuntz optikoa du.

Iruburu industrialdea

- 59.382 m²-ko azalera du.
- 52.686 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiak ditu.
- Zoru berria.
- Urbanizazio egokia du, baina herritarrendako sarbiderik ez dago, bidea eta argiteria ez dira egokiak.
- Zuntz optikoa du.

Lakuntza

Sarrarte industrialdea

- Udalarena
- 221.063 m²-ko azalera du.
- 160.532 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiak ditu.
- Garatzea falta diren unitateetan ezik, zorua emanda dago.
- Urbanizazioa hobetu behar da, gune barruan espaloirik gabeko guneak baitaude. Herritarren sarbidea ez da guztiz egokia.
- Zuntz optikoa du.

Arbizu

Utubar industrialdea

- Udalarena

- 284.470 m²-ko azalera du.
- 133.308 m² partzela erabilgarriak.
- Ohiko bonbillak LED argiengatik ordezkatu beharra dago.
- Zorua ongi dago.
- Industrialdearen zati handi batean urbanizaziorik ez dago. Oinezko eta txirrindulariendako sarbidea ez dago urbanizatuta. Hori errepidez egin behar ez izateko proiektua dago.
- Zuntz optikoa du.

Etxarri Aranatz

Zumurdiñeta industrialdea

- Udalarena.
- 129.844 m²-ko azalera du.
- 91.065 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiteria du, baina zati batzuetan argi gutxi dago.
- Zoru gehiena konpondu beharra dago.
- Industrialdearen barruko urbanizazio zati handi bat berritu beharra dago. Herritarrendako sarbidea oso txarra da, bideak eta argiteriak ez dituzte baldintzak betetzen.
- Zuntz optikoa du.

Urdiain

Zangitu industrialdea

- Udalaz gairaineko Eragineko Plan Sektoriala 2008an onartu zen.
- 250.000 m² desjabetu ziren.
- 2011n lehen fasea proposatu zen.

- 170.000 m²-ko azalera.
- 90.000 m² partzela erabilgarriak.
- Sarbideetarako lehen lanak egin ziren, 91.000 euro.
- Udalaz gairaineko Eragineko Plan Sektoriala gelditu zen eta 65.000 m² bueltatu ziren.
- Nasuvinsaren esku 185.000 m² daude.

Altsasu

Ibarrea industrialdea

- Udalarena. 1966koa.
- 324.100 m²-ko azalera.
- 264.600 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiteria du.
- Zorua, erdizka, toki batzuetan hobetu beharra du.
- Poligono barruko urbanizazioa berritu beharra dago. Oinezkoendako sarbidea oso txarra da, bidea eta argiteria ez dira egokiak.
- Ur beltzen sarea jarri da, baina lbarmusuko zatia falta da.
- Zuntz optikoa du.

Txunkai industrialdea

- Nasuvinsarena. Udalaz gairaineko Eragineko Plan Sektoriala tramitatzen ari da, enpresa eskatzaile bakarra balego sinplifikatuko litzatekeena.
- 1966koa da.
- 7.565 m²-ko azalera.
- 7.565 m² partzela erabilgarriak.
- Guztia egiteko dago.

Isasia industrialdea

- Zenbait jaberena, udalak beretako nahi luke. 1993koa da.

- 66.364 m²-ko azalera
- 37.978 m² partzela erabilgarriak.
- Zorua nahiko egoera egokian.
- Urbanizazioa egokia gunearen zati batean, baina urbanizatu gabeko guneak daude. Herritarrendako sarbiderik ez du.
- Zuntz optikoa du.
- Uholdeek ur azpian uzten dute.

Ondarria industrialdea

- Udalarena, 1982koa.
- 1981.821 m²-ko azalera.
- 176.789 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiteria du.
- Falta den zoru zatia asfaltatu beharra dago. Ur ihesak daude eta ur beltzak jasotzeko sarrerik ez dago. Sare guztiak berritu beharra du. Ez dago espaloirik.
- Zuntz optikoa du.
- Arfe zena bota eta enpresendako erabilgarri izatea eskatu da.

Olatzagutia

Arkinorruti industrialdea

- Udalarena.
- 125.000 m²-ko azalera.
- 75.110 m² partzela erabilgarriak.
- LED argiteria.
- Zorua egoera txarrean. Aurten lanak egitekotan.
- Urbanizazioa. Apenas ez dago espaloirik, edo gaizki daude. Herritik joateko ez da egokia ezta argiteria ere.
- Zuntz optikoa jartzeko lanak egiten ari dira.



PORTUKO
akidemaja

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Txokolate eta kremazko trentzak
(3 egun lehenago eskatu)

www.promocionesamayna.com



IRURTZUN BERRI

948 071 935



xapatero
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz

Zundaketekin AHT bertan dela esan dute

Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea Sakanan barna nondik joanen litzatekeen zehazten laguntzeko zundaketak egiteko eskaerak jaso dituzte udaletan. Momentuz, zazpi udalek 48 eskaera dituzte. Zerbait ikusiz gero udalei jakinarazteko eskatu dute

SAKANA

Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren (AHT) korridorea Euskal Yarekin lotzeko bi aukera daude mahai gainean, eta biek Sakana ukitzen dute. Batak ibarra zeharkatuko luke Beriain eta Urbasa-Andia magaletik, trenbideak Gasteizen lotzeko. Bestea da lotura Ezkio-Itsason egitea. Horretarako, trenbidea Lakuntza parean lurpean sartuko litzateke, 22 km. Lan horiek egiteko lurra nolako den jakin behar da eta udaletara zundaketak egiteko baimen eskaerak iristen ari dira. Momentuz, Arakilen 30 eskaera jaso dute, Uhartte Arakilen 5, Arruazun 2, Lakuntzan 6, Arbizun 2, Bakaikun 1 eta Iturmendin 2. Arruazura arteko zundaketak Beriain magalean egitekoak dira, Lakuntzan Aralar eta Beriain aldean, eta Arbizutik aurrera Urbasa-Andia aldera.

Lakuntzako alkate Oihane Uribeberria Garmendiak azaldu duenez, zundaketak egitea nahi



Lakuntzako elkarretaratzean 150 bat pertsona elkartu ziren.

duten lursail batzuk herri lurrak dira eta besteak pribatuak. Udalarari zehaztu diotenez, zundaketaren zuloak 27 eta 63 milimetroko zabalera izanen dute, eta gehienezko sakonerak 132 eta 200 metro artekoak izanen dira.

Uribeberriak azaldu duenez, "zundaketa baimen eskaerak jaso dituzten udalek bilera eginen dugu. Lur jabe pribatuak jakinaren gainean jarriko ditugu". Alkateak ere deia egin du: "udalak eta kalea batu behar gara. Lan eremu guztietakoan indarra beharko dugu. Bitartean deituko diren ekimenetara adi egon, eta aldamenak informatu".

Sakana Trenaren Alde plataformako Arkaitz Los Arcos Bertizek azaldu duenez, "zundaketak lurrean egiten diren zulaketak dira, lur laginak ateratzeko egiten dira. Horrekin eta beste irizpide batzuekin erabakiko dute AHTren zein ibilbide egin. Aralarren barna trenbidea egitea Sakanan barna eramatea baino hiru bider garestiagoa da". Plataformakoak prentsaren bidez jakin zuten, "milioi bat euro gastatuko lukete Aralarren zundaketak egiteko. Udalengandik jakin dugunez, bi alternatibendako eskatu dituzte zundaketak".

Protokoloa

Los Arcosek nabarmendu duenez, "beste behin ere, horrelako makroproiektuak aurrera egiteko uda baliatzen dute. Gure ikus-

pegitik ez da kasualitatea. Jendea beste zerbaitean pentsatzen dago, oporretan, kanpora joaten gara. Protokoloarekin jendeari jakinarazi nahi diogu AHT benetan badatorrela. Hau da lehen pausoa AHT gure ibarrera iristeko. Zundaketek trenbidea nondik joanen den jakiteko balio dute". Gaineratu duenez, "AHTz urtetan hitz egin da. Denboran luzatu egin denez, jendeak urruneko kontu bat bezala ikusten du. Baina, tamalez, gero eta gertuago dago". Horregatik, plataformakoen iriziz, erakundeek eta jendarteak lan egin beharra dute.

Protokoloaren helburua da "erantzun duin bat" ematea. Plataformakoek azaldu dutenez, "herritarren batek zundaketaren bat egitera doazela jakin edo ikusten badu bere udalarekin eta Trenaren aldeko eta AHTren kontrako taldeekin harremanetan jartzeko eta horren aurrean erantzun bateratua emateko. Dela kontzentrazioak deituz, zundaketa gunera gerturatuz... Ataunen inongo baimenik gabe agertu ziren eta saiatu ziren zundaketak egiten. Geldiaraztea lortu zuten. Halako aurrekontua darabilten enpresak ez dakigu zertan ari diren beraien legedia betetzen ez dutenean". Plataformak ere telefono zenbaki bat zabalduko du horretarako. Uribeberriak nabarmendu duenez, "norbaitek zerbait ikusiz gero, mesedez, jakinarazi. Badakizue non gauden. Hemen, momentuz, zundaketak egiteko baimenik ez baitute. Saiatuko gara ahalik eta oztopo gehien jartzean".

Tren soziala

Orain arte adierazi dutenaren arabera UPNk, Geroa Baik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan EAJk, Ezkio-Itsasoko loturaren alde egiten dute, PSOE, berriz, Gasteizkoaren alde. Plataformakoek ez dakite zein den PPre hautua. 2022ko estatuko aurrekontuetan jasotako 200.000 euroko diru sailaz galdetuta, Los Arcosek azaldu duenez, "EH Bilduk aurkeztutako emendakina zen, Burgos eta Castejon artean xehetasuneko ikerketa tekniko bat egiteko, jakiteko zer beste modu zeuden. Eta jakiteko benetan beharrezkoa den haiek planteatzen duten bidaiariendako plataforma eskusiboa, edo balioa eman dakiokkeen gaur egungo plataformari. Sozialistek hori

garatuko zutela esan zuten. Beste behin ere, beste esfera bateko politikarien hitzak balio du beraien helburuak lortzeko, eta hori albo batera uzteko". Hala ere, hainbat plataformek lan bera egin zuten 16.000 euroekin. "Detailzko proiektua dela aitortu digute hainbat arkitekto, baita Valentzia eta Madrilgo AHT geltokiak egin dituztenak. Zer eginen genukeen 200.000 euro horiekin".

Plataformek egin duten tren sozialaren trazatu proposamena ondu zuten, "alternatiba garrantzitsua dela uste dugu", azpimarratu du Los Arcosek. Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zuten. "Etsigarria da garrantzi handiko erabakiak hartzen dituzten politikariek hitz egitea eta batzuk, proposatzen duten plataformatik merkantziak garraiatuko ez direla ez jakitea". Herriz herriko aurkezpenekin hasi ziren eta horri segida emanen diote. "Harrera oso positiboa izan zen, 150 bat pertsona joan izan dira aurkezpenetara orain arte".

Los Arcosek esan duenez, "gero eta tren zerbitzu kaskarragoak ditugu, Gasteizera edo Iruñera joateko hiruna tren besterik ez ditugu, gero eta beranduago etortzen direnak. Altsasuk hiri handietara joateko tren zerbitzua badu, AHTrekin galduko lukeena. Gero eta geltoki gehiago ixten ari dira. Altsasuko tren geltokiko langileak ere kendu zituzten. Bitartean, bidaiariendako bakarrik izanen den trenbide plataforma batean gastatzen dute dirua. Gero eta argiago dago merkantziak eramango dituenaren kontua ez dela egia. Iruñerriko proposamenetan bi trenbide daude: bata bidaiariendako eskusiboa, AHT, eta, bestea, merkantziendako". Aralarren egin daitekeen 22 km-ko tunela gogoan duela, plataformako kideak esan duenez, "Espainian AHTrako tunel luzeak egiten saiatu direnean, sekulako sarraskiak egin dituzte. Esaterako, Pajaresen, Asturiasen". Azkenik, nabarmendu du ibarreko udal gehienak AHTren proiektuaren kontra daudela.


"EGUN ZUNDAKETAK EGITEKO BAIMENIK EZ DUTE. SAIATUKO GARA AHALIK ETA OZTOPO GEHIEN JARTZEN"

DUELA 25 URTE...



Telegunea Irurtzunen

Biaizpe telegunea garagartzaroaren 30ean mustu zuten. Cederna-Garalur elkarrekin abian jarri zuen eta haren bidez teknologia berrien erabilera sustatu nahi zuen. Elkarrekin sustatzaileak enplegua eta zerbitzuak hobetzeko bitarteko gisa ikusten zituen teknologia berriak. Teleguneak hainbat zerbitzu eskaintzen zituen, besteak beste: ordenagailuen alokairua, eskaner zerbitzua, fotokopiagailua, Internet zerbitzua edo posta bidezko helbidea.



EZ IKARATU!!

Nafarroako Gobernuaren kanpaina turismo alokairu mamuen aurka.

Apartamentua, etxebizitza turistikoa edo landetxea baduzu, gogoratu Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu behar duzula. Ez egitea garesti atera dakizuke: **9.000€ arte. Sekulako ezustekoa!**

Sartu www.turismoregistro.navarra.es helbidean eta erregistratu ezazu erraz, azkar eta seguru. Izena eman

ondoren, alokairuaren publizitatea egitean erakutsi beharko duzun kode bat lortuko duzu.

Zure apartamentua, etxebizitza turistikoa edo landetxea erregistratua badaude, konfiantza eta segurtasuna transmitituko dituzu eta zure herrian turismo sozial eta ordenatua sortzen lagunduko duzu.

FESTAK

UNANU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 30 Ostirala


13:00 Txupinazoa eta auzatea.
13:00-15:00 / 18:00-20:00
Trikitixa.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00 / 00:30-04:30 Ilargi taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 1 Larunbata

12:00-14:00 Puzgarriak eta txaranga.
16:30-19:30 Puzgarriak.
18:00-20:00 Txaranga.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00 / 00:30-04:30
Tximista taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 2 Igandea

11:00 Gure Pilota taldearen pala partiduak eta pilota partiduak.
13:30-14:30 / 18:00-22:00
Txaranga.
18:00-19:00 Dantzariak.
20:00 Auzatea.



ARRUAZU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 30 Ostirala

15:00 Bakoitzak bere etxeko ataria garbitu.
18:30 Suziri, Herriyeen Itxetik.
19:00 Meza, San Pedro basilizan.
19:30 Merendua, Sanpedrondon.
20:30 2022an jaiotakoei zapien banaketa.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:30 Arbazuko Zortzikoa, plazan.
22:45 Afaria, Itur Gain elkartean.
00:30-04:30 Trikidantzekin dantzaldia eta jauziak.

UZTAILAK 1 Larunbata

17:00-19:00 Etxez etxe parranda Skapaie elektrotxarangarekin.
17:30 Haurrendako jolasak, elkartearen atzekaldean.
20:00 Gazta eta ardoa, plazan.
20:30-22:00 Gabenara taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
00:30-04:30 Gabenara taldearekin zirriyek eta irriyek.



UHARTE ARAKIL Joan zen urtean jaiotako bi umeetako baten aitak etxajua piztu zuen. Ondoren, 2022 urtean jaiotakoei zapia jarri zieten.



ARBIZU Kintoeek San Juan ermitan dantzatu zuten San Joan bezperan. Ondoren, sua piztu eta honen gainetik salto egin zuten arbizuarrek.

UZTAILAK 2 Igandea

12:00 Meza santua.
12:30-15:00 Haurrendako eta gazteendako jolasak.
15:00 Herri bazkaria, frontoian.
17:00 Panchoren kanta mexikarrekin bazkalondoa.
17:00-19:30 Haurrendako ta gazteendako jolasak.
20:00 Gazta eta ardoa, plazan.
20:30 Los Txingones de la Renclekin doinu mexikarrak.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:30 Herri parrillada, plazan.

00:30 Bidondo DJrekin disko jartzaile festa, ostatuan.

UZTAILAK 3 Astelehena

15:00 Herri paella, zuhaizpian.
18:00 Herri kirolak: Imernaubek Azkonarren aurka.
19:00 Bingo musikatua.
19:30 Amixar ta haurrendako txokolatea.
20:00 Gazta eta ardoa.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:30 Herri parrillada, plazan.

LIZARRAGABENGOA

EKAINAK 30 Ostirala

19:00 Festen hasiera. Puzgarriak eta bonba japoniarrak.
19:30 Auzatea eta trikitilariak.
21:30 Afaria.
23:00-02:30 Musika.

UZTAILAK 1 Larunbata

12:00 Etxez etxe trikitilariakin.
16:00 Puzgarriak.
17:00 Bonba japoniarrak.
18:30 Aizkora.
19:30 Auzatea.



ALTSASU San Pedro ermitara gerturatu ziren atzo altsasuarrak.

21:30 Afaria.
23:30 Hogei Berrero taldearen emanaldia.

UZTAILAK 2 Igandea

12:00 Etkez etxe Altsasuko fanfarrearekin.
16:00 Puzgarriak.
17:30 Bonba japoniarrak.
19:30 Kontzentrazioa: Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00 Auzatea trikitalariekin.

URRITZOLA

UZTAILAK 1 Larunbata

11:00 Dianak.
12:00 Txupinazoa, hamaiketakoa, txaranga, rana eta toka.
14:30 Bazkaria (erreserbarekin), bazkalondoa eta txaranga.
17:00 Mus eta partxis txapelketak.
18:30 Haur jolasak.
20:30 Rock kontzertua: Tresparsers Iruñetik, Black Crowes taldearen omenez.
21:00-23:00 Bokatak plantxan, txoznan.
21:30 Bingo!
22:00 Zezensuzkoa.
22:30 Kontzertua: SK, 1990eko hamarkadako rocka Zizurtik.
00:00 Suak eta patxangeo.

URDIAN

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Larunbata

12:00 Etxajua eta festen hasiera Txaranga Txorongo txarangak alaituta.
12:15 Car la Benitez makillatzailearen haurrendako fantasiako makillajea.

12:30 Jolasak.
UGAk antolatuta.
14:00 Herri bazkaria.
16:00 Ekolsarteko txirrindula lasterketa.
20:00-22:00 DJ Ainhoa Elorriaga.
22:00 Herri afaria.
00:00-03:00 Leihan taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 2 Igandea

10:30 Ardo banaketa San Pedroko hariztian.
12:30 Meza, San Pedro ermitan.
14:30 Bazkaria, San Pedro zelaian.
17:00 Zortzikoa.
19:00 Salbea eta herrira itzulera.
20:00-22:00 Sukar taldearen emanaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Sukar taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 3 Astelehena

10:00 Gosaria Tintinurri elkarteak eskainia, alondegian.
12:00 Meza.
12:30-14:00 Fidel Zelairekin dantzaldia.
14:30 Jubilatuen bazkaria, Fidel Zelaik alaitua.
15:00 Pastenko bazkaria Turrutxiki txarangarekin.
18:00 Xabi Larrearen *Up!* Ikuskizuna.
20:00-22:00 / 00:00-03:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 4 Asteartea

10:00 Gosaria, gizona eskainia.
12:00 Haurrendako jolasak.
14:30 Emakumeen bazkaria, Irunberriko txarangak alaitua.
17:30 Kadeteen txirrindula lasterketa.
20:30-22:00 Los Tenampas

taldearen kontzertua.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Cafe Irlandes taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 5 Asteazkena

10:00 Gosaria Aitziber elkarteak eskainia.
12:00-14:00 Ur txirrista.
14:30 Herri bazkaria.
16:00-19:00 Ur txirrista.
17:30 Etkez etxe Txaranga Txorongorekin.
20:00-22:00 / 00:00-03:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.

* Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da alondegian.
* Eguerdietan, lentzeria erakusketa, auzoan.



URDIAN San Joan bezperan 'Kantaita' abestu zuten sua piztu aurretik.

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
URDIAN
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ERGOIENA
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARRUAZU
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
LIZARRAGABENGOA
libre!

Mank
Sakan

"Berriemaile izateak ez du denbora asko kentzen"

OLAIA FERRERO MARIN BERRIEMAILEA

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak Altsasu Bigarren Hezkuntza Institutuan zituen bi berriemaileek asteburua Palentzian eman dute, berriemaileen estatuko topaketetan

ALTSASU

Hilabete hasieran Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren aitortza jaso zuten hainbat gaztek. Zerbitzuaren eta gazteen artean bitartekari lanak egin dituzte ikasturtean zehar. Berriemaile horietako bi, Kimetz Arregi Martin eta Olaia Ferrero Marin, estatuko beste berriemaileekin asteburua pasa dute.

Zer da berriemaile izatea?

Altsasun gure helburua informazioa partekatzea da. Intxostiapuntan egiten diren ekintzen berri partekatzea institutuaren edo ikastolan adibidez. Kimetz eta biok Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan egon gara ikasturtean zehar klaseetan hitzaldiak ematen. Pasabidean zegoen iragarki taula batean ere kartelak jartzen genituen, jendeak zer eskaintza zegoen jakin zezan. Bestalde, jendeak izan zitzaizkenez zalantzak erantzuten saiatzen ginen. Gainera, jendeak egin nahi zituzten ekintzen berri ekartzen genuen Intxostiapuntara eta Erakundeekin (gazteria teknikaria) haien inguruan hizketatzen ginen. Bestetik, asteazkeneko gazte gunean bilera bat egiten genuen, ekintzez-eta hitz egiteko.

Zergatik eman zenuen izena berriemaile izateko?



Berriemaile altsasuarrari Palentziako topaketan hitz egitea tokatu zitzaion. UTZITAKOIA

Gogoratzen naiz hasieran etorri zela orientatzailea eta azaldu zigun, azkenean, jendaurrean hitz egin behar genuela. Hori nik landu nahi nuen zerbait zen. Ba, bai, esan nuen. Aukera berri bat da, eta probatu nahi dut. Horregatik, gazte gunera etorri nintzen eta, honi esker, uste dut asko ireki naizela jendaurrean hitz egiterakoan; beldurrik ez izaten.

Ikaskideek kasu egiten dizute?

Kontuan izan behar da zer-nolako gelatan sartzen zaren. Egia da, klase guztiak ez direla ber-

dinak, giroa asko aldatzen da klase batetik bestera. Batzuetan, nire ustez, bai kasu egiten zigituen. Baina, adibidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailako klasetan oso zaila zen guztiak esaten ari zarena entzuteko eta ulertzeko prest egotea.

Berriemaile izatea ikasketekin bateragarria da?

Noski. Esan dizudan bezala, asteazkeneko etortzen ginen hona eta, normalean, egoten ginen 30 minutu. Horrek ez dizu denbora asko kentzen. Klaseetan, lehe-

nengo irakasleekin hitz egiten zenuen, eta hartzen zenuen, adibidez, 15 minutu klase batzuetan hitzaldiak emateko, eta kitto. Ez dizu denbora asko kentzen, uzartu ditzakezu bi egitekoak.

Norbait berriemaile izatea aholkatuko zenioke?

Jakina.

Berriemaile gisa, ikasturtearen zein balorazio egin duzu?

Oso aukera polita da. Zu irekitzeko, beldurrik ez izateko jendearen aurrean hitz egiterakoan. Gainera, jende berria ezagutzen duzu, eta lagun berriak egin ditzakezu. Nire ustez abantaila asko ditu.

Ikasturtea bukatu bada ere asteburuan berriemaile izan zara. Nolaz?

Palentzian egon ginen. Altsasutik bakarrik bi berriemaile joan gintezkeen eta Kimetz eta biok joan gara. Helburua zen Espainiako beste berriemaileekin elkartzea Palentzian. Aurten berriemaileen topaketa han izan zen. Han beste berriemaileekin, zure esperientzia elkarbanatzea zen helburua. Eta ekintza asko egin gintuen ere.

Nola egin duzue informazioa elkarri emateko?

Bilera bat egon zen. Espainiako lekuetakoak taldeka banatu zituzten. Mikrofona ematen gintuzten eta hasten ginen gure esperientzia kontatzen, zenbat diru lortzen genuen, zer-nolako ekintzak egiten genituen... Horrelakoak azaldu genituen eta, horrela, Espainiako hainbat lekutan berriemaileak nola moldatzen diren ezagutu genuen.

Bazter guztietan berdin lan egiten duzue?

Ez, ez, ez. Askok aldatzen da.

Konparatuz gero, Altsasukoa, onerako edo txarrerako?

Onerako. Leku batzuetan lan asko egiten dute, baina bolunta-

ria da, ez diete ordaintzen, diploma eman, eta kito.

Palentziako egonaldian zerbait ikasi duzue?

Gauza asko ikasi ditut. Alde batetik, Palentzia ezagutu dut, berriemaileek zer nolako ekintzak egiten zituzten, batzuek aholkuak ematen zituzten... Topaketa nahiko ondo egon zen.

Mobila bete ideia ekarri duzu. Hori Intxostiapuntako arduradunei jakinarazi diezu?

Ez, baina, ziurrenik, bai, esango diet.

Balio du Palentziakoak?

Hiru egun izan dira, oso gutxi. Egun gehiago behar dira. Jende asko geunden. Jakiteko zer-nolako ekintzak egiten zituzten, jendea ezagutzeko, hiru egunetan ez duzu betarik. Sakontzeko denbora gehiago behar da, noski. Baina, tira.

Hiru egun lagunak egiteko balio izan dizute?

Kontaktuak izateko-eta, nahiko ondo. Lagun-lagunak izateko, ez. Denbora gutxi izan da. Normalean, zuk lagun bat izaterako pertsona ezagutu beharko duzu, eta horrek denbora dakar. Baina, hori, kontaktuak izateko, nahiko ondo.

Ongi pasako zenuen, ezta?

Bai, bai, bai, bai, bai.

Berriemaile izateko beste aitzakia?

Jakina.

Jarraituko duzu berriemaile izaten?

Ez dakit oraindik, baina bai gustatu zait asko esperientzia hau. Pentsatu beharko dut, gauza asko ditut egiteko hurrengo urtean.

"AUKERA ONA DA, IREKITZEKO, BELDURRIK EZ IZATEKO JENDEAREN AURREAN HITZ

2023/24 ESKOLAZ KANPOKO BEGIRALEEN LAN POLTSA

ANDRA MARI IKASTOLA

Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak, 2023/24 ikasturterako eskolaz kanpoko begiraleen beharra du:

Beharrak:

- Xake (LH)
- Multikirolak (LH 1-4)
- Sukaldaritza Inglesez eta euskaraz (LH 4-6)
- Beste edozein jarduerak egokia dena HH eta LHRako

Eskatzen da:

- Ahozko euskara maila ona.
- Curriculumarekin batera 5 orduko programazio proposamena bidaltzea.

Curriculumak eta programazioa ebamari@ikastola.eus postara bidali gaiten "Eskolaz Kanpoko Lan Poltsa" adierazita eta zein eskolaz kanpoko jardueretarako aurkezten den.

EPEA: UZTAILAREN 7ra arte.

Zalantzen bat izanez gero, gurekin harremanetan jami (ebamari@ikastola.eus / 948 46 02 86)

Sanjuandar ukendua

Olazti Naturak antolatuta, sanjuandar ukendua egiteko ikastaroa eman zuen Cris Pinek. Hilaren 17an bi orduko ibilaldia egin zuten izena emandako guztiak herri inguruko sendabelarrak ezagutzeko eta identifikatzeko ikasteko. Jasotakoekin, hurrengo egunean, sanjuandar pomada egin zuten. Guztira 33 olaztiarrek ikasi zuten ukendua egiten.



OLAZTI NATURA

Sunsundeguiak langileak hartzeko prozesua hasita

Volvo proiektuagatik, Nafarroako Gobernua eta Sunsundegui elkarlanean ari dira. Elektrizitateko, pinturako, soldadurako eta muntaiako profesionalak hartzeko prozesua hasi da, karrozeria enpresaren plantilla handitzeko beharrei aurre egiteko

ALTSASU

Sunsundeguiak Volvoren goi mailako bi autobus modelo egiteko esleipenak enpresak eta foru administrazioa hainbat arlotan lanean jarri ditu. Horietako bat da langile kualifikatu beharri erantzutea. Horregatik, Nafar Lansarek eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak, Sunsundeguiarekin batera, lanbide profilak hautatzeko eta prestatzeko programa bat jarri dute martxan.

Zehazki, eskatutako lau lanbide profiletarako (elektrizitate, pintura, soldadura eta muntaketa) langileak biltzen hasi dira, Nafar Lansarek Altsasun eta

Iruñean dituen bulegoen bidez. Interesa duten guztiek izena eman dezakete Nafar Lansarek berak emandako bitartekoen bidez eta curriculum vitae bidali elektrizitate, pintura, soldadura eta muntaketa espezialitateetako bakoitzerako gaitutako esteken bidez.

Aldi berean, trebakuntzarako programa batzuk prestatzen ari dira, Nafarroako Gobernuaren hainbat instalaziotan garatzeko asmoa dutenak, eta agorriaren akaberan hasiko dira aurrez hautatutako pertsona guztiekin. Kontratazio konpromisoa duten prestakuntza teoriko praktikoak dira, eta hautatutako pertsonak

Sunsundeguiako produkzio prozesuan behar bezala integratzea ahalbidetuko dute. Nafarroako karrozeria enpresak lanbide prestakuntzako programa bukatu eta berehala egingo ditu laneratzeak, eta, beraz, curriculum garila baino lehen bidali duten interesdunek lehen langile hautaketaren parte izanen dira.

Enpresaren eta gobernuaren arteko elkarlan esparrua Sodena enpresa publikoa koordinatzen ari da. Elkarlanaren barruan, Nasuvinsa enpresa publikoa lurrrak eta instalazioak aztertzen ari da. Azken elkarlan ildo aurreikusitako ekoizpena handitzeko finantza laguntzarena da.



Autoak ilaran. UTZITAKOIA



Iñaki Mujika. ETB

V. Irurtzun-Arakil Rallysprint, larunbatean

Etzarrengo dermioko eta Irurtzongo plazaren arteko ibilbidean lehiatuko dira 51 ibilgailu

ARAKIL-IRURTZUN

Bosgarren edizioa du Arakil eta Irurtzunen egiten den rally lasterketak. Arakil Motorsport eskuderiak antolatuko du, eta lehiakideek 12,5 km osatu beharko dituzte. 09:00etatik 12:00ak arte egiaztapenak izanen dira, 12:30ean aurkezpena eta 15:30ean lasterketaren irteera izanen da. Ondoren, TC2-TC3 lasterketa izanen da.

Irteera puntuan 51 auto izanen dira. Haien artean ibarreko eskuderiako hamar ibilgailu. Arakil motor sporteko zazpi dira eta gainontzeko hiru lehiakideak Sakana motor sporteko eskuderiako kideak dira.

Angel Nieto Fundazioak Iñaki Mujika lagunduko du

Lau motorzale famaturen artelanak enkantean jarri ditu, eta jasotakoa Mujikari emanen diote

ALTSASU

Iñaki Mujika altsasuarrak 37 urte ditu, eta motorra izan da bere pasioa betidanik. 2021eko apirilean, ordea, moto istripua izan zuen motocross lasterketa batean, eta lesio medularra eragin zion. Ordea, jazotakoak ez zuen kikildu, eta bere pasioa egikaritzen jarraitu du.

Angel Nieto Fundazioak bere pasioaz entzun zuen, eta laguntzea erabaki zuen. Horretarako, lau artelan enkantean jarri ditu fundazioak, jasotakoa Mujikak jasoz dezan.

Manu Campa artistak lau pilotu handiren erretratuak egin ditu; Marc Marquez, Angel Nieto, Giacomo Agostini eta Valentino Rossi ageri dira koadroetan.

Industriaren energia trantsiziorako kongresua

Nafarroaren Europa hegoaldeko "berriztagarrien industria" papera indartu nahi du Enerclusterrek

LAKUNTZA

Berriztagarrien arloan lan egiten dituen erakunde pribatua da Enercluster. Bere kideetako bat Sakana Group kooperatiba lakuntzarra da. Enerclustertik jakinarazi dutenez, Trantsizio

Energetikorako Industriaren Nazioarteko III. Kongresua antolatu dute Iruñean lastailaren 25ean. Biurteko topaketa horretan eolikoaren, eguzki energiaren, biltegitratzearen eta hidrogeno berdearen enpresa erreferenteak

parte hartuko dute. "Sektore berriztagarriak, aurrean erronka eta aukera handiak ditu eta horiei aurre egiteko prestatu behar gara", ziurtatu du Ana Goien Enerclusterreko presidentek. Ziurtatu duenez, kongresua "energia trantsizio globalaren gakoa den une batean egingen da". Izan ere, Europar Batasunak berriztagarrien helburua %45era igotzea erabaki du. "Ondorioz, urte bakarrean berriztagarrien 100 GW ezarri beharko dira", jakinarazi duen Goienek.



MUSIKAZ
BLAI

**Aimar
JIMENEZ
BAQUEDANO**

Musikaria / BURLATA

Ezetz
asmatu
zeintzuk diren
bere kantu
kuttunak
Piztu irratia!

Ekainaren 30ean, ostirala,
10:30etik aurrera
eta errepikapena 14:30ean

Beleixe irratian

beleixe 107.3 FM



Eraso, Imaz eta Vadillo, podiumean. @RFECICLISMO

Imaz, txapelkunorde 23 urtez azpiko Erlojupekoan

TXIRRINDULARITZA Movistarreko Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre ere aritu ziren, profesioaletan. Afizionatuen mailan, berriz, Iker Mintegik, Jon Gilek eta Martxel Etxeberriak parte hartu zuten. Beroak gogor jo bazuen ere, fin aritu ziren.

Iñaki Rubio Mendoza ALTSASU

Gaindika bete du denboraldi hasieran zuen helburua; Nahia Imaz altsasuarrak zilarrezko domina eskuratu du Espainiako Txirrindularitza Txapelketaren baitan jokatu den Erlojupekoan, 23 urtez azpiko emakumeen kategorian. San Joan bezperan egin zen, Madrilen. Imazek kronoaren kontrako froga ezin hobea mamitu zuen, eta podium gutiziatuenetariko batean ikusgarritasuna eman dio bere Sopela Team taldeari.

Eguzki kiskalgarriaren pean, lehia bizian aritu zen Imaz, Laboral Kutxako Idoia Eraso eta Eneritz Vadillo euskaldunekin batera buruz buru. Ziztu bizian irten ziren hirurak, zuhur ordea, azken kilometroetan guztia eman eta urrea irabazteko grinaz. "Sekula ez dut erlojupeko hain luzerik egin, eta ondo baino hobeto neurtu behar dira indarrak", azaldu du altsasuarrak. Izan ere, 32 kilometroko erlojupekoa biziki latza izan zela dio, eta azken

10 kilometroak erdietsi arte ernai mantendu zen: "Helmugara iritsi aurreko kilometro horiek oso garrantzitsuak dira; galdu edo irabaztearen arteko aldea oso murrizta da".

Estrategia hori eraginkorra izan zen; hiru euskaldunek hegan egin zuten Sevilla la Nueva karraketan. Eraso izan zen lehena (0:46:48), eta Imaz bigarrena, +13 segundoko aldearekin; Vadillo are gertuago ibili zen, eta bi segundo baino ez zizkion atera altsasuarrak hirugarrenari.

Halaber, elite kategoriako lasterkariekin batera aritu ziren, eta top-10ean sailkatu da altsasuarra. "Motibagarria da oso maila absolutuan 10. izatea; profesional izatetik gertuago nagoela ikusarazi dit". Kategoria horretan, AG Insurance-ko Mireia Benito gailendu zen (0:43:20).

Imaz Sopela taldearekin aritu da, "nesketan ez baitago Nafarroako selekzioarekin batera joateko aukerarik".

Sasoi latza

Distira guztiak ordea ez dira urre; Imazek denboraldi gora-beheratsua izan du. "Urte zaila izan da. Iaz denboraldi osoa lesionaturik egon nintzen eta erritmoa hartzea kosta egin zait". Bereziki Espainiako Itzulia izan zen gogorra altsasuarrarentzat, erorikoa izan eta utzi egin behar izan baitzuen

"HELMUGARA IRITSI AURREKO KILOMETRO HORIEK GARRANTZITSUAK DIRA" NAHIA IMAZ

"ONDO ARITU GINEN, ARERIOAK LARRITUZ TALDE GUZTIA BATERA" IMANOL ERBITI

Zailtasunak zailtasun, ordura arte egindakoaz oso harro azaldu da Sopelako txirrindularia. "Urte malkartsua izan bada ere oso kontent nago; ikusiko dugu zer datorren ondoren".

Sakandarrak ere guda-zelaian

Espainiako Erlojupeko Txapelketan ez zen soilik Imaz aritu. Elite kategorian Movistarreko Gorka Izagirre aritu zen eta zortzigarren postua eskuratu zuen, 37:38-ko denborarekin. Ineos Grenadiers taldeko Jonathan Castroviejo izan zen garaile (36:44). Burunda taldean trebatu ziren Unai eta Hugo Aznar ere bikain ibili ziren, 23 urtez azpiko gizonezkoen mailan, izan ere, urrea eta zilarra lortu zituzten erlojupekoan, hurrenez hurren. Hori gutxi ez eta lineako lasterketa ere irabazi zuen Unai Aznarrek, sub23 kategorian, eta lehen txirrindularia izan da erlojupekoa eta lineakoa batera irabazten.

Lineako errepede lasterketan, hain zuzen ere, Movistarreko Gorka Izagirre eta Imanol Erbiti aritu ziren elite kategorian, 4:14:05 eta 4:15:14ko markarekin, hurrenez hurren. Erbiti pozik azaldu da egindakoaz: "Ondo aritu ginen, arerioak larrituz; talde guztia batera aritu ginen, koordinaturik. Horren emaitza da Oier Lazkano (4:13:12) gasteiztarraren garaipen absolutua". Rural Kutxako Josu Etxeberria iturmendiarrak ere kategoria horretan aritu zen, 51. postua eskuratuz (4:18:33). 186,1 km egin zituzten.

Afizionatuak ere aritu ziren lineako lehiaketan, Nafarroako selekzioaren izenean. Aznarrek irabazi zuen (4:06:26), eta Iker Mintegi (4:09:04) izan zen lehen sakandarra, 14. postua bere eginez. Jon Gil 13. izan zen (4:10:24), eta Martxel Etxeberria 34. (4:17:10).

Bero sargoria

Temperaturak maximoan egon ziren asteburuan, eta ondorioak jasan zituzten lasterkariek. Ibilbideak gogorak baziren izatez, beroak ere gehiago zaildu zuen Txapelketa. Lineako elite mailan, esaterako, erdiak baino gehiagok utzi zuten lasterketa. Erbitik ere beroa sufritu zuen: "Lasterketaren abiadura eta intentsitatea latzak ziren oso, eta beroak ez zuten batere lagundu".

Sakandarrak espainiako txirrindularitza txapelketan

ERREPIDEKO LASTERKETA, LINEA

Profesionalak

1. Oier Lazkano (Movistar Team)	4:13:12
29. Gorka Izagirre (Movistar Team)	4:14:05
35. Imanol Erbiti (Movistar Team)	4:15:14
51. Josu Etxeberria (Rural Kutxa-Seguros RGA)	4:18:33

Afizionatuak

1. Unai Aznar (Nafarroa)	4:06:26
14. Iker Mintegi (Nafarroa)	4:09:04
23. Jon Gil (Nafarroa)	4:10:24
34. Martxel Etxeberria (Nafarroa)	4:17:10


ESPAINAIKO ERLOJUPEKO TXAPELKETA

Profesionalak (gizonak)

1. Jonathan Castroviejo (Ineos Grenadiers)	36:44
8. Gorka Izagirre (Movistar Team)	37:38

Afizionatuak (Emakumeak)

1. Idoia Eraso (Laboral Kutxa)	0:46:48
2. Nahia Imaz (Sopela)	+0:13





Frantziako Tourraren hasierak izanen duen ibilbidea. UTZITAKOA

'Grand Départ'-a bertan da

TXIRRINDULARITZA Aurtengo edizioan Euskal Herriatik emanen dute irteteko pistola tiroa, Bilboko Etxeberria parketik. Ondoren Gasteiza helduko da tropela, eta handik Donostiara zuzenduko da. Azken etapak kostaldea zeharkatuko du, Amorebietatik Baionara

Iñaki Rubio EUSKAL HERRIA

Bertan da munduko lasterketarik garrantzitsuenaren iritsia da Frantziako Tourra. Eta ez urteroko gisan. Aurten, Euskal Herriatik egingen du itzulia grand depart-a. Datorren uztailean leian, hainbeste urtetan desiotako plaza izanen du euskal txirrindularitzak. 1993an Donostia izan zen horren lekuko zuzen, itzuli hori bertatik irten zenean. Bada oraingoan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba zeharkatuko ditu. Bilbon egingen da lehen etapa. Lehiaketaren hurrengo parada Gasteiz izanen da, Donostiarantz, Zornotza eta Baiona batuz ondoren. 110. edizioa du Tourrak.

Lehenengo etapan (Bilbo-Bilbo) 185 kilometro korrituko dituzte txirrindulariek uztailean lehenengoan. Hurrengo egunean, Gasteiz eta Donostia artean, 210, eta, azkenik, euskal kostaldea zeharkatuko dute Zornotza eta Baiona artean 80 kilometro eginez. 530 kilometro, guztira.

Zorutik zerura

Aski ezaguna da Euskal Herriaren orografia malkartsua, eta esentzia mendizale hori mantendu nahi izan du antolakuntzak. Izan ere, Bilboko etapak +3000 desnibel izanen du; Gaztelugatxe eta Nabarniz-Elizaldetik igaroko da besteak beste, eta Pike Bidean amaitu, 212 metroko pareta galantean. Bigarren eta hirugarren etapetan, Aztiria, Gurutze eta Orioko Benta izanen dituzte lasterkariak aurrez aurre.

Maldatsu eta gogorra

Behin Baionara helduta, Frantziarantz ekinen dio bidea tropelak. Osotara 3400 kilometro ariko dira maldan gora behera,

"OSO GOGORRA IKUSTEN DUT AURTENGO EDIZIOA" GORKA IZAGIRRE

21 etapetan. Horietatik 8 mendian izanen dira, eta soilik bat erlojupekoa (22km). Orotara, +3300 metroko desnibela du Tourrak. Hasiere-hasieratik, indar handia erakutsi beharko dute txirrindulariek, Euskal Herriko etapak ez baitira ahuntzaren gauerdiko ezutela.

Gorka Izagirre "oso gogorra" ikusten du aurtengo edizioa. Movistarreko txirrindulariak tradizionalagoa dela aitortu du: "Mendiko etapa asko daude, askotariko menua izatea gustatzen zait". Izan ere, azken urteetan norabide hori hartu du mundu-txirrindularitzak. "Erlojupeko geroz eta pisu gutxiago ematen diete, mendiko etapa asko sartuz". Halako lasterketa luzeetan, dio, aniztasun berriak bilatzen dituzte eta pareta hutsak dira denak". Tourrak ere bide hori hartu duela azaldu du, gehiago kostatu bazaio ere. "Oreka bat mantentzea gustatzen zait".

Ibarrekoen presentzia

Gorka Izagirre Tourrean arituko da, hala baiezkatu zuen Movistar taldeak iragan astelehenean. Movistarreko beste 7 txirrindulari-ekin arituko da Ziordian bizi den Ormaiztegiarra. Imanol Erbiti Movistarreko hiribertarra ordea ez da ariko. "Lesioa izan nuen eta osatzen ari naiz oraindik". Halere, taldea dena emateko prest ikusten du. "Egindako lanak bere fruituak erakutsiko ditu", esan du Erbitik.

Pogacar vs. Vingeraard

Tadej Pogacar eta Jonas Vingeraard txirrindulariak dira itzulia irabazteko faboritoak. Vingeraard da indarreko irabazlea, eta Pogacarrek 2020 eta 2021eko edizioak irabazi zituen. Daniarra eta Esloveniarrak buruz buru ariko dira, eta foku guztiak gainean dituzte. Bi horien norgehiagoka historikoa da kasik, eta Frantziako itzulian argituko dituzte beren artekoak. "Pogacar eta Vingeraard lehian aritzeak zaildu egiten dizkie gauzak gainerakoei", azaldu du Erbitik. Interesgarria izanen da oso.

Munduko afizio onena

"Afizioen maillot horia da euskalduna". Horixe esan zuen Tourreko Presidente Christian Prudhomme. Hori izan da, bere aburuz, Tourraren hasiera Euskal Herriatik abiatzearen arrazoi nagusietako bat. Ez zuen, seguruenik, alferrik bota. Euskal afizioa leiala izan da oso urteetan zehar; mundua horiz tindatzen zenean, Euskal Herriak laranja egiten zuen, Euskaltel Euskadi taldeari baldintzarik gabeko sostengua emanez. Milaka euskaldun joan ohi dira urtero Pirinioetara.

Ziordiko Lasa familia da horren adibide argia. Hainbat urtez egon dira Frantziatik eta iparraldean, lasterkariei animorik beroenak ematen. "Aurten, Itziarrera joanen gara, astelehenean, eta hurrengo egunean Col de Soudeten izanen gara", azaldu du Unai Lasak. Ilusioz bizi dute gertakizun hori, eta bertatik bertara ikusteak atsegina dute. "Giro ikaragarria izaten da, eta gehienak euskaldunak gara".

"ERLOJUPEKOEI GEROZ ETA PIXU GUTXIAGO EMATEN DIETE" GORKA IZAGIRRE

TXIRRINDULARITZA

Sakandarrak Espainiako Txapelketan

Asteburuan jokatuko dira Espainiako eskolen eta junior mailako txapelketak, Cartagenan. Burunda Txirrindularitza Taldeko hainbat lasterkari arituko dira bertan, Nafarroako Selekzioarekin, hala nola, Iker Gomez eta Iker Agudelo junior mailan arituko dira. Kadete mailan Ekain Imaz arituko da eta eskoletan Lucia Andueza eta Eider Mazarik.

BTT eta errepide modalitateetan ariko dira, kategoria maskulino eta femeninoan. Halaber, erlojupeko frogak ere egingo dituzte; indibidualak eta taldekakoak, baita ginkana bat ere. Nafarroa osotik 48 txirrindulari Murtziara bidean dira jada.

FUTBOLA Lagun Artea, jubenilen lehenengo mailara

Lakuntzako Lagun Artea K.E. jubenilen lehenengo mailara igo da, iragan larunbatean Leitzako Aurrera taldea 2-3 irabazi ostean. Preferente mailan, ordea, jaitzi egin ziren, 30 urtetan lehen aldiz igo eta gero; erregional mailan ariko dira datorren denboraldian.

PILOTA Ezkurdia, sanferminetako finalerako pauso batera

Joseba Ezkurdiak irabazi egin du Peio Etxeberriaren aurka 22-20ko emaitzarekin Logroñon jokatuako San Fermin Txapelketako partida. Ondorioz, Arbizukoak (Nafarroa) urrats bakarrean du final handia.





Lasterketako azkenak helmugara iristen.

Iñarra eta Ordoñez, menderakaitzak

MENDI LASTERKETAK Asier Palacios eta Eneritz Karasatorre izan ziren sakandar azkarrenak, podiumetik oso gertu. A4\XKm eta Hiru Herri taldeak izan ziren Nafarroako mendi lasterketen Txapleketaren irabazleak.

Iñaki Rubio Mendoza

ETXARRI ARANATZ

Ekainaren 25ean Etxarriko Triku Trail lasterketa egin zen, giro apart eta ezinhobean. Eguraldia aldeko izan zuten 275 lasterkariak, eta herri orretako baso ikusgarriaz gozatu ahal izan zuten. Ander Iñarra eta Maria Ordoñez izan ziren ibilbideak zituen 21 kilometroak egiten azkarrenak. Halaber, 1300 metroko desnibelari aurre egin behar izan zioten lasterkariak.

Goizeko 09:30ean zuten zita korrikalariak, Etxarriko kanpinean. Bertatik irten eta basoan sartu ziren ziztu batean; Maitzegur trikuharria igarota, Txaradigorri mendia izan zuten aurrez aurre, Lizarrustirantz jaitsiz ondoren. Ibilbidea jarraituz Fagamendira iritsi ziren, bertatik jaitsierari ekinez. Helmugara iritsi baino lehen Haritz Zaharren Ibilbide mitikoan galdu ziren lasterkariak.

Bala bat bailitzan zeharkatu zuten Iñarrak baso hori, eta de-

zenteko aldea atera zion bigarrenari. Lezoko korrikalariak azaldu du indartsu aritu dela: "Lizarrustira arte lau lehiakide gindoazen buruz buru, baina Lizarrustira heldutakoan estutzea erabaki dut eta lehena izan naiz aurrerantzean". Beroa izan zen protagonista handia baita ere, nahiz eta "ibilbide gehiena zuhaizpean" izan zen.

DANTZALEKU SAKANA TALDEAK BOSGARREN POSTUA ESKURATU ZUEN TALDEKAKO SAILKAPENEAN

"EDIZIO HONETAN GEHIAGO SUFRITU DUT AURREKOETAN BAINO" ASIER PALACIOS

Maria Ordoñez, bestalde, emakumezkoen kategorian lehena izan zen. "Ez nekien atzean nuen neska hurbil zegoenez, eta apur bat itsu-itsuan aritu naiz, baina denbora aldetik helburua bete dut, beraz kontent nago". Azaldu du C.A Txurregiko korrikalariak.

Sakandarrak, sasoi

Asier Palacios altsasuarra izan zen ibarreko lehena: "Edizio honetan gehiago sufritu dut. Aurrekoetan lainoa eta euria egin izan du, baina oraingoan egin duen eguzki eta beroak larritu nau". Palaciossek eskertu du antolakuntzak ur baldeak jarri izana ibilbidean zehar, lasterkariak freskatzeko. Bestetik, Eneritz Karasatorre izan zen lehen emakume sakandar eta etxarriarra.

Ikusten ez den lana

Antolakuntza izan ohi da lasterketetan, eta oro har, ekitaldi guztietan, habe garrantzitsuena. Triku Traileko arduradun Asier

Beltza izan zen koordinatzailea: "Jende asko etorri da aurreko edizioekin alderatuta, kontuan izanik beste lauzpabost lasterketa egin zirela egun berean Nafarroa osoan; paisaia, pizgina... abantaila handia dugu kanpinean dugun eskaintzarekin".

Halaber, etxarriarren parte hartzea handiagoa da urtez urte; aurten 35 izan dira. "Aragoi, Errioxa, Valentzia... kanpoko jende asko etortzen da egiten dugunaz disfrutatzena."

Kluben arteko txapelketa

Nafarroako klubn arteko mendi lasterketen txapelketa jokatu zen bertan, halaber. A4\XKm taldea izan zen garaipen gehien metatu zituena, kategoria maskulinoan. Emakumezkoenean, Hiru Herri taldea izan zen garailea. Besteak beste, Txurregi taldea izan da bi podioak osatu dituen.

Dantzaleku Sakana taldea ere aurkeztu da aurtengoan, 5. postua eskuratuz. Asier Palacios, Ander Iraizoz eta Juan Larreak osatu zuten: "Laugarren postua hatz puntekin ikutu genuen; gutxiatik ez genuen lortu".

IX. Triku Trail sailkapena

Emakumezkoen sailkapena

1. Maria Ordoñez Marina 2h.16:03
2. Ainara Alcuaz Rodriguez +3:49
3. Maddalen Jimenez Andres +6:28
4. Ane Elzaurdia Mentaberri +15:06
5. Irene Artazcoz +15:50
6. Eneritz Karasatorre Araña +21:58

Gizonezkoen sailkapena

1. Ander Iñarra Olaziregi 1h.48:03
2. Jesus Maria Alegria Mauleon +2:51
3. Aimar Otxoteko Larrarte +4:09
4. Javier Aranguren +4:43
15. Asier Palacios Maiza +14:26

Etiketeta Berdea

Lasterketa etikoen aldeko manifestua egin dute Euskal Herriko hainbat lasterketa propiok, eta Triku Trail sinatzaileetako bat izan da. Mendi lasterketen baloreak azpimarratu eta sustatzea du helburu ekimenak, azken urteetan ekintza horien masifikazioak ekarri dituen arazoak konpontze aldera.

Besteak beste, lasterketa etiko eta naturarekin begirunezko harremana dutenak aldarrikatu dituzte manifestura atxiki direnek. Salatu dute, halaber, mendi lasterketak mediatizatu egin direla eta horrek lasterketa horien baloreak zalantzan jartzen dituela.

Horretarako, label berri bat sortu dute; Etiketeta Berdea. Balio etiko horiek betetzen dituzten lasterketa horiek jasoko dute bereizgarria, lasterketa jasagarriagoak sortze aldera. Helburu nagusia natura zaintzea izan da, gizakion urrats ekologikoa



Bidea sinalizatzen duen plastikoa.

murritzuz. Korrikalari guztien arteko berdintasuna ere aldarrikatu dute, lehiaketa osasuntsuak ekimenaren ardatz bilakatuz. "Horrek elkarbizitza baikor bat bermatzeko balioko du".

Asier Beltzak babes irmoa adierazi dio ekimenari. "Polita eta beharrezkoa da". Izan ere, erabili duten material guztia birziklatu egin dute, datorren urtean berriz ere erabiltzeko. "Gure aztarna gutxienekoa izatea nahi dugu".



SAKANAKO ERRALDOIAK

Kolorereta itzazu

28 orrialdetako liburuxka, ilustrazio eta azalpenekin

ESKUALDEKO
LIBURU-DENDA HAUETAN **SALGAI:**

IRURTZUN: ELUSTONDO ETA MARTXUETA

ETXARRI ARANATZ: KAXETA

ALTSASU: ARKATZ ETA LIBURUNDA

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 30

SAKANA Jardunaldia.

Enpresen deskarbonizazio planei buruzko jardunaldia, Sakanako Garapen Agentziak antolatuta. **09:00etan aurrera, online.**

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Haize Txikiak Bandaren kontzertua. **19:30etan, plazan.**

IRURTZUN Kontzertua.

Mielotxin taldearen kontzertua, *Musika parkean* zikloaren barruan. **20:00etan, Gernika plazan.**

ZIORDIA Kontzertua.

Gussy abeslariaren kontzertua. Abesti propioak eta bertsoak. **20:30etan, Etxaleku tabernan.**

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Moises no duerme Live Band taldearen kontzertua, *Kultur Zikloaren* barruan. **22:00etan, eskoletako frontoian.**

LARUNBATA 1

IRURTZUN Rallysprint.

V. Irurtzun - Arakil Rallysprint, Nafarroako Rally eta Junior

txapelketa. 12,5 kilometro.

09:00-12:00 Egiatzapenak.

12:30 Aurkezpena.

15:30 Lasterketaren irteera.
Ondoren, TC2 – TC3 lasterketa.

19:30 Sari banaketa.

OLATZAGUTIA Bisita gidatua.

Koskobilu, ibilbide bat historiaurrera ibilbidearen aurkezpen-bisita gidatua, Aranzadi zientzia elkarteren eskutik. **10:30etan eta 17:00etan, Erburua kiroldegiko aparkalekutik.**

ALTSASU Sarrera-hitzaldia.

Castillo Suarezek Euskaltzain sarrera-hitzaldia egingen du. **12:00etan, Iortia Kultur gunean.**

IRURTZUN Kontzertua.

Haize Txikiak Bandaren kontzertua. **19:30, Gernika plazan.**

IGANDEA 2

IRURTZUN Kontzertua.

Kriya taldearen kontzertua. **20:00etan, Pikuxar plazan.**

ASTELEHENA 3

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ALTSASU Hitzaldia.

Sakanako Itaiaren *Emakume langileen eskola: Sexualizazioaren eta erreproduzioaren merkantilizazioa* aztergai. **18:00etan, Gure Etxea eraikinean.**

ASTEARTEA 4

ALTSASU Batzarra.

Altsasuko Jai Batzordearen festak antolatzeko batzarra. **18:00etan, Burunda frontoian.**

IRURTZUN Ricardo Azkargorta artistaren *Bertatik Bertara* margolan erakusketa.

Uztailaren 18ra arte. Pikuxarren.

Bazkide

ZOZ

keta

EKAINEKO SARIDUNAK

1. SARIA
Jabier Beraza Maiza
(Etxarri Aranatz)

2. eta 3. SARIAK
Antonio Ceberio Maiza (Etxarri Aranatz)
Idoia Zufiaurre Galarza (Altsasu)
Erkuden Plaza Mugarza (Altsasu)

Zorion agurra

Matte duzunari

zorion@guaixe.eus

Er **vit** **i** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es

Azkartasun handiko zerbitzua

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erausketa Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, kumuna eta *officea* ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZAK

Arakilgo Udalak udarako aisialdi campuserako begiraleen lan poltsa osatu nahi du: Deialdian interesa duenak *arakil-kultura@gmail.com* post-tara curriculumak bidali behar du. Derrigorrezkoak dira Euskara B2 maila izatea, DBH edo baliokideak diren ikasketak eta aisialdi begirale titulua izatea.

Ergoienako Udalak udarako aisialdi begirale bila dabil: Interesa duenak bere curriculuma *info@ergoiena.eus* posta elektronikora bidali behar du. Lanaldia uztailaren 17tik abuztuaren 11ra izanen da.

SALGAI

MUSIKA

Piano elektrikoa salgai: 400 euro. Interesa baduzu deitu 628894409 telefonora.

OHARRAK

Lakuntzako jaietan haurrei zapi banaketa: 2022an jaiotako eta Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapia jaso nahi badute udaletxean izena eman behar dute uztailaren 21a baino lehen.

Olatziko festetan haurrek zapia jasotzeko izen ematea zabalik: 2022 urtean urtean jaiotako haurrek jaietan zapia

jaso nahi badute familiek udaletxean izena eman behar dute garilaren 10a baino lehen.

Udako Sakanako Mintzakide taldeak: Etxarri Aranatzeko astean behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun astean behin goizetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Zatoz gurekin dohainik da! Izena emateko wasapa bidali 600 482 024 telefonora.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarako Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatzen du. Uztailaren 23an, meza nagusiaren bukaeran Haurren aurkezpena egingo da irudiari musu emanez. Aldez aurretik izena ematen dutenek umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminora jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena edo *basanoa.josemari@gmail.com* helbidera idatziz.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udako Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Herri Urratsen elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko: Herri Urratsen joatea ezinezkoa egin bazitzaitez eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzte; *www.herriurrats.eus* web orrian sartuta eta

materiala erosiz. Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats aurkitu eta dirua bidalizi) edo honako kontu korronte hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* webgunean eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnendako dirulaguntzak: 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak, C2 mailakoak bame. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarrekin zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskaraz erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian. *iragarki@guaixe.eus* *www.iragarkilaburra.eus*

JAIOTZAK

- **Eki Flores Mendia**, ekainaren 2an Ziordian
- **Izan Shewing Senar**, ekainaren 24ean Etxarri Aranatzeko

EZKONTZAK

- **Manuel Dacosta Almeida eta Alina Maria Diaconu**, ekainaren 10ean Ziordian
- **Nerea Vizuete Fernandez eta Iñaki Lizarraga Madinabeitia**, ekainaren 23an Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



ESKELA

Eugenia Lazkoz Razkin

Bidaia ona izan

Zure familia
Lizarragabengoa - Madrid



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



'In Perspective' Laida Aldazek Oteiza Museoan sortutako performancearen une bat. UTZITAKOA

Eszenikoak ez diren espazioak

Laida Aldazek zuzendutako 'In Perspective' performancea egin zuten aurreko ostiralean eta larunbatean La Faktoriako 25 dantzarik. Artista etxarriarrak landutako "metodologiaren" bidez dantza, arkitektura eta musika uztartzen dituzte

Ekainaren 23an eta 24an Laida Aldaz artista etxarriarrak zuzendutako *In Perspective performancea* egin zuten Oteiza museoan, Jorge Oteizaren heriotzaren 20. urteurrenaren ekimenen barruan. Arkitektura, dantza eta musika uztartzen dituen ikuskizuna La Faktorea koreografia zentroko bosgarren belaunaldiko 25 dantzarik egin zuten, Juanma Urrizak musika sortu zuen eta Gregory Alliot zuzendari laguntzailea izan zen.

Duela urte pare bat Aldaz "metodologia bat" garatzen hasi zen non arkitektura eta dantza elkarlanean jartzen dituen. Site specific metodologiarekin hainbat ikuskizun egin ditu: Zinetika jaialdiaren barruan Iruñeko Kondestable jauregian, Donostiako Euskadiko Arkitektura Institutuan eta Bilboko Guggenheim museoan, Iruñeko Ka-

tedralaren patio gotikoan, eta Italiako Luccako museo batean hango dantza eskolako ikasleekin ere egin zuen. Performance hauek dantzari profesionalek osatu zituzten taldeak, Aldazek azaldu duenez.

Egunerokotasunean erabiltzen diren espazioak eszenatokiak bihurtzea gustatzen zaio Aldazi: "Beti izan dut interesa ez eszeniko diren espazioak eszeniko bihurtzen, eta duela urte asko egon naiz antzokiak ez diren lekuetan lanean. Instalazioak espazio abandonatuetan egiten hasi nintzen, gero Delivery performance deitutako performancea egin nuen, non etxera pizza bat eraman beharrean performance bat eramaten nuen, eta horretan ni joaten nintzen dantza egitera edo instalazioa egitera". Bi film labur grabatu zituen bere etxean eta lagunen etxean

blikoaren atentzioa ezinbestekoa da, baita laguntza ere.

"Ikuskizun bakoitza bakarra da, eta ez da forma horrekin inon gehiago ikusiko". Metodologia honekin egiten dituzten performanceak arkitekturarekin erlazionatuta daude. Espazioaren arabera aldatzen dira. Ikuskizun hauek prestatzeko, beraz, estudioan "material fisikoa" ateratzen dute eta landu behar dituzten espazioetara eramaten tokira transformatzen dute, "ez dauka zentzurik estudioan egiten duguna; material fisikoa espaziotik bertatik egiten dugu. Nola erlazionatzen zaren zure gorputzarekin leiho horrekin eta zer den espazio horri eskaintzen diozuna eta zer den espazio horrek zuri eskaintzen dizuna".

Artista etxarriarra Zinetika dantza eta ikus-entzunezkoak uztartzen dituen jaialdiaren eta La Faktoriako zuzendaria da, Marta Coronadorekin batera, eta abuztuan Baluartean instalazio bat erakutsiko du, Huarte Arte Garaikide Zentroak sustatutako dirulaguntza baten bidez. "Tamaina handiko liburu bat da, eta horren gainean tabletak daude".

"Nire ustez konposizioa dago arkitekturan, musikan, dantza, arte plastikoetan... Ez dut bereizten". Proiektu bat sortzen ari denean ez du pentsatzen azkenean emaitza zer forma izango duen. "Ez ditut mugarik jartzen, ikusten dut hori aurkezteko eta ikerzteko zein den modurik egokiena: bideo bat, instalazioa, ikuskizuna...". Gorputza proiektu guztietan presente dago.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Koloretan



Oraindik ez duzu ezagutzen, oraindik ez dakizu zer den zerbaitek ez zaitzala arrastaka eraman, zerbaitek ez zaitzala zeure gorputzean preso egin, zuk uste duzun hori dela, hain zuzen, ezer ez izatea eragiten dizuna. Oraindik ez duzu ezagutzen zer den maitatzea. Oraindik ez dakizu zer den askatasunez maitatzea.

"SORTZEN ARI NAIZENEAN EZ DITUT MUGARIK JARTZEN; EZ DAKIT ZEIN IZANGO DEN EMAITZA"



Ane Martija kantautorea Etxeberrin.

Erkuden Ruiz Barroso ETXEBERRI

Ane Martija musikari etxeberriarra "etengabe" sortzen dabil, nahigabe egiten duela esan du: "Azkenengoan pilota partida ikusten ari nintzen, eta momenturen batean zerbait gertatu zen, eta horrekin abesti bat bururatu zitzaidan". Etxean dagoenean gitarra hartzen du eta akordeekin kanta ateratzen ditu, eta kaletik joaten denean telefonoan audioak grabatzen ditu. Momentuz bi abesti grabatu ditu, eta gehiago grabatzea aurreikusten du. Nafarroako Gobernuak sustatutako Bira Nafarroan Barna zikloaren barruan dago, eta uztailan bi emanaldi emanen ditu Sakanan; Iturmendiko festetan, uztailaren 16an, eta Arakilgo egunean, uztailaren 25ean, Izurdiagan.

Konpositorea

"Noiz hasi nintzen? Txikitatik. Txikitatik gustatu zait musika egitea; pianoarekin, gitarrarekin eta edozerekin". Ane Martijaren aitari ere musika gustatzen zitzaion, eta berarengandik jaso du zaletasuna. Irurtzungo musika eskolan "txikitari" hasi zen, eta bertan txistua eta gitarra ikasi zituen. "Egia esan behar dut, txistua ikasten hasi nintzen aitak nahi zuelako. Gero pila bat jo dut, eta orain dantza talde batean nago, eta batzuetan jotzea tokatzen zait, eta jotzen jarraitzen

Bizitzaren doinuak

Abesti gehiago grabatzea da Ane Martija musikari etxeberriarren nahia. Kontzertuak ematen jarraitzen du; Bira Nafarroan barna zikloaren barruan Zangozan egon zen. Besteak beste, harremanak eta bizitza dira bere abestien oinarria

dut. Baina ez zen nire lehenengo aukera".

Musika sortzeko pianoa edo gitarra "komenigarrienak" direla esan du Martijak, "eta niri gehien gustatzen zitzaidana zen gitarra". Etxeberriko abeslariaren abesti askok "gertuko jendearekin lortzen dugun harreman ona eta erosoetan" harremana dutela azaldu du, "askotan horretan oinarritzen naiz". Beste batzuetan, pilota partida ikusten ari zenean, esaterako, bizitza momentu batetik bestera aldatu daitekeela landu du abestietan: "Pilotari batek lesioa izan zuen, eta ikusi nuen dena oso ongi joan daitekeela, eta momenturen batean gertatu daitekeela edozer gauza eta dena aldatu". Duela urte bat inguru ere senide bati minbizia diagnostikatu zioten,

"eta horri buruz hitz egiten dut asko abestietan, momentua bizi behar dugula, egun batetik bestera dena aldatu daitekeelako".

La egunero sortzen duela aitortu du, "egunero ez, baina askotan nabil gitarrarekin eta abestiak sortzen". Aurten abesti gehiago grabatu eta "posible bada" disko bat atera edo "zerbait" sortzea nahi du. "Baina prozesu luzea da". Orain arte bi abesti grabatu ditu: *Plaza zein taberna* 2021ean eta *Ni neu eta bihar* 2022an. Iñaki eta Leire Zizurko musika pro-

"IA EGUNERO SORTZEN DUT; ASKOTAN NABIL GITARRAREKIN ABESTIAK SORTZEN"

duktoreekin grabatu ditu abestiak, "haiekin elkartuko naiz eta ateratzen dena". Abestiak Interneteko plataforma guztietan aurki daitezke, eta Instagramen ere "aktiboa" egoten saiatzen dela esan du musikariak.

Momentuz, kantautoreak kontzertuak ematen jarraitzen du. Maiatzaren 20an Zangozako Karmengo auditorioan egon zen Nafarroako Gobernuako Kultur departamentuak sustatutako Bira Nafarroan barna zikloarekin. "Eskerrak eman behar dizkiot Patxi Mikeo Irurtzungo kultur teknikariari. Berak esan zidan badagoela Nafarroako musikarien eta taldeen webgune bat (Navarra Music Commission) eta berak sartzea gomendatu zidan. Bertatik bidaltzen dizkigute mezu eta proposamen pila bat, adibidez, jai-

dietan parte hartzeko". Bira Nafarroan barna programa egiteko orduan webgune horretan dauden musikariak kontuan hartzen dituztela azaldu du etxeberriarrek, "sartu nintzen eta deitu ninduten".

Biran

"Deitu nindutenean aitarekin nengoan, deia bukatu nuen eta esan nion aitari: "Parte hartu nahi dudana galdetzeko deitu naute, eta hor sartuta jende pila bat dago". Bere erantzuna: "bai, mesedez" izan zen. Ziklo honetan musikariek emanaldiak ematen dituzte Nafarroako zenbait herritan udaberrian eta udazkenean. Martijaren kasuan maiatzean Zangozan egon zen eta azaroaren 29an Lesakan egonen da.

Normalean Martijaren kontzertuak aire librean eta publikoak ikusten izaten dira, eta Zangozakoa kultur etxean zenez "gauza desberdin bat" zela esan du: "Iritsi nintzenean gogoratzen naiz esan zidatela kamerinoa nuela: Nola kamerinoa? Jendea sartzen entzuten nuen eta ezin nuen sinetsi jendea ni ikustera zetorrela". Emanaldietan ere abestiak azaltzen ditu eta publikoarekin hitz egiten du, "burura etortzen zaidan guztia esaten dut, mikrofonoa hartu eta 'hor zaudete?' galdetu nuen". Ez zuen publikoarekin egoteko aukerarik izan, baina gurasoak eta anaia jendearekin hizketan egon ziren eta "oso gustura" egon zirela esan zioten.

11 GALDERA



2019ko Urritzolako festak, Naiara Mariñelarena saxofoia jotzen, alkandora txuriarekin. UTZITAKOIA

"24 ordu baino gehiago izatea nahiko genuke"

Uztailaren 1ean, larunbatean, Urritzolako festak ospatuko dituzte. Hogei biztanle inguruk dituen Arakilgo kontzejuan egitarau zabala antolatu dute. Herri osoak antolatzen eta parte hartzen du, Naiara Mariñelarena urritzolarrak azaldu duenez

Erkuden Ruiz Barroso URRITZOLA

1 Urritzolako festak izanen dira uztailaren 1ean. Zer ospatzen duzue? Zergatik data honetan?

Lehen irailean ospatzen genituen, baina eguna motzagoa dela eta Urritzolako saildua San Pedro izanda, San Pedro eguna hurbilago duen asteburuan ospatzen ditugu festak. Gainera, hiru urtez ospatu gabe egon gara; aurten

lehenengo festak dira pandemia izan zenetik.

2 Nola antolatzen dituzue?

Bada guztion artean. Batek haurrentzako jokoak antolatzen ditu, beste batek denondako gauzak, beste batek udalari aulkiak eta mahaia eskatu, besteak erosketak egiten ditu... Bakoitzak ahal duena egiten du, baina guztion artean anto-

latzen dugu. Herri osoak parte hartzen du, guztiok zer edo zer egiten dugu.

3 Egun bakarra, baina handia. Egitarau zabala duzue.

Bai, egun horretan egunak 24 ordu baino gehiago izatea gustatuko litzaiguke. Herriko askok musika instrumentuak jotzen ditugu eta beti jotzeko prest gaudela... Beraz, guztiok parte hartu

ahal izateko, egun potentea geratu zaigu.

4 Zergatik dira bereziak Urritzolako festak? Zer dute?

Ez dakit herrikoak ez direnentzat bereziak izango diren ala ez, baina norberaren herriko festak beti dira bereziak. Guk horrela bizitzen ditugu, behintzat. Primeran pasatzen dugu herritar guztiokin elkarrekin eta etortzen diren lagun guztiokin.

5 Bisitariak hartzen dituzue?

Bai, noski. Herriko atea zabalik daude ondo pasatzera etorri nahi duten guztiontzat!

6 Zein da zure momenturik gokoena?

Bada, ez nuke jakingo bat aukeratzeko, baina bazkaldu eta gero txarangarekin sortzen den giroa edo kontzertuen momentua izan daiteke. Edo, agian, karpa mun-

tatu eta kentzeko momentuak non herriko guztiok laguntzen dugun, eta espero dugunaz edo gertatu denaz hitz egiten dugun.

7 Ohituraren bat?

Ohitura berezirik ez dugu, egitarauan agertzen da egongo den guztia.

8 Zerbait berezia jantzen duzue?

Ez, bakoitza nahi duen moduan joaten da. Hori bai, herriko zapia ez da inoiz falta gure lepoetan.

9 Festetan izandako anekdotaren bat?

Lehenengo urteetan, festak irailen zirenean, beti jaisten ginen traktorean Errotzeko zezensuzkoa ikustera, baina urte batez traktorean jaitsi ordez villavesa zahar batean jaitsi ginen. Gainera, gehiago nabarmentzeko Irurtzundik pasa ginen. Herri guztia villavesan txaranga eta guzti!

10 Festen ondoren, zer?

Festen ondoren karpak kendu, dena txukun utzi, eta jaietako gertaera guztiak komentatzen ditugu. Abenduko Santa Luzia eguna ere ospatuko dugun hitz egiten hasi beharko gara.

11 Teorian bi familia joango dira bizitzera; herria handitzen ari da.

Bai, familietako bat ni. Bi familia etorriko gara, eta beste bi etxetara ere biztanle berriak etorri zaizkigu, beraz, poliki-poliki handitzen doa. Orain dela asko utzi nion Urritzolako gazteena izateari. Nire ondotik beste hiru txiki jaio ziren, jada 20-30 urte dituzte. Orain, nire alaba da Urritzolako gazteena.

FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

